



Uztaila eta abuztua atseden hartzeko hileak dira askorentzat. Maider Aranak, ostera, Arabako Angosto kanpinean lan egiten du beste hainbat durangarregaz batera. • 2-3

Oporretan ez doazenak

Gehigarria


Garaiko,
Mallabiko eta
Mañariko
jaiak

OPORRETAN GOAZI!

Anbotoren hurrengo alea irailaren 2an kaleratuko dugu. Bien bitartean, jaso ezazue Durangaldeko aktualitate guztia anboto.org webgunean. Ondo pasa uda!

Durangoko familia batzuek auzibidera jo dute Getxoko udaleku batzuen kontra

Durango • Durangoko bost ume eta euren familiak daude kaltetuen artean. Gurasoek umeen bila joan behar izan dute Getxora, seme-alabak handik ateratzera. Euren begiekin ikusi dute instalazioen egoera "negargarria". "Zikinkeria, instalazioen egoera tamalgarria eta arriskua" azpimarratu dituzte. Udalekuaren jarduera etenda dago. • 4



“Abuztu osoa gogorra dator, baina lanean aritu gara datorrena aurreikusten”

Maidar Arana durangarra Gaubeako Angosto kanpinean bizi da eta bertan lan egiten du beste zortzi durangarregaz batera



Maidar Arana Unamuno
Zerbitzaria
DURANGO | 1978

OPORRAK • IGOR GALARZA

ANBOTOK oporrak hartuko ditu, baina Durangaldeko langile askok lanean jarraituko du asteetan. Hurrengo lau protagonistetariko bat Maidar Arana da. Gaubean dabil lanean, Angosto kanpinean zerbitzari lanetan, hain zuzen ere. Beragaz batera Durangoko beste zortzi lagun dabilta lanean. Agenda "beteta" dute abuzturako, eta lanez lepo egongo dira.

Zelan duzue agenda?

Abuztu osoa gogorra dator, baina lanean aritu gara datorrena aurreikusten. Hala ere, olaturik handiena Aste Santuan etortzen da, denak batera agertzen dira eta. Udan sakabanatuago datoz, eta uda ostean asteburuetan egoten da lana.

Zelakoa da Angosto kanpina?

Oso handia da orain, pandemia garaian handitu egin genuen eta. Aukera asko dago bertan: hiru igerrileku, sauna, umeentzako zinema, jatetxea... Naturaren erdian dago, baina herrigunetik gertu, 900 bat

metrora.

Eta zelakoa da horrelako inguru batean lan egitea udan?

Itzela! (barrez). Lan pila bat dugu, baina beste lasaitasun batez lan egiten dugu. Mendiaren bihotzean ez dabil kotxerik, eta hiriguneko zarata horretatik ihes egitea lortzen duzu.

Zelan heldu zinen Gaubeara?

Hogei urte pasatu dira hona lehenengoz etorri nintzenetik. Zuzenean etorri nintzen kanpinera, bizitzera eta lanera. Gero, sasoi batean alde egin nuen, baina orain dela hamaika urte bueltatu nintzen.

Alde galanta egongo da Durangoren moduko herri batean bizi edo mendi inguruan bizi.

Niretzat aldaketa ez zen hain handia izan, San Rokeko baserri batean bizi nintzen eta. Joan nintzen garaian, Durango demografikoki handitzen hasi zen. Beraz, jautzia ona izan zen niretzat. Hori bai, bakarrik egotea gustatzen ez bazaizu, saltoa handia da. Hemen negua gogorra da, elur asko egiten du eta

bakarrik egoten gara. Bailara guztian 900 bat lagun gaude erroldatuta, baina neguan 500 bat baino ez gara bizi bertan. Gure kanpinean, Durangoko kale batean beste biztanle dago.

Gertuko jendeagaz kanpinean sortzen da lotura, guk ez dugu astirik-eta Durangora joateko. Durangotik jende mordo etortzen da

Zelako esperientzia da zure lantokian bizitzea, oporretan dagoen jendeagaz?

Gu ere ia-ia oporretan gaudela sentitzen dut. Ez dugu jenderik ikusten urte osoan, eta azken urteetan Durangoko jende asko etorri da kanpinera. Gertuko jendeagaz hortxe sortzen da lotura, guk ez dugu astirik-eta Durangora joateko. Durangotik jende mordo etortzen da.

Zuen etxeko ateak zabaltzen dituzuela sentitzen duzue?

Gure bizitza osoa kanpinean oinarritzen da. Kanpotik datorren jendeak alegantzia ematen digu udan. Jenderik etorriko ez balitz, penaz hilko ginateke kanpinean.

“Oraingoz, udan okupatuta egotea albiste ontzat hartzen dut”

Miren Amuriza herri askotako jaietan arituko da bertsoan, baina Bertsolari Txapelketa Nagusira begira ere badago



Miren Amuriza Plaza
Bertsolaria
BERRIZ | 1990

BERTSOA • I.G.

Udako zirkuituan bertso saiorik gehien izaten duenatarikoa da Miren Amuriza. Idazketagaz uztartzen du bertsoa, eta udan lasaiago ibiliko dela badio ere, Euskal Herriko oholtza asko zapalduko du uztailean eta abuztuan. Internetez entrenatzen ibili ostean hartu du telefonoa, udazkenean datorren Bertsolari Txapelketa Nagusirako ere hasi da prestatzen eta.

Lotu duzu udako agenda?

Gutxi gorabehera, bai, lotu dut. Ekainean bertigoa sartzen zaigu urtero, "nitaz ahaztu dira" pentsatzen dugu, baina, gero, etorri dira saioak. Uztailean gutxitxoago, beharbada, baina abuztuan badituz saioak, betiko antzera.

Gogotsu zaude udari begira?

Denon moduan nagoela esango nuke. Ni ere zain egon naiz uda noiz ailegatuko, ikasturtean zehar denbora faltagaitik egin ez ditudan gauzak beste erritmo eta beste patxada batez egiteko, batez ere idazketari begira. Askotan, urtean zehar badituzu arratsalde solte batzuk libre, baina ez da berdin lan egiten.

Geratu barik ibiliko zara, baina.

Betikoa da. Lehen esandakoari udako saioak batzen zaizkio, eta, udazkenean begira, izendaezina den mamu hori (Bertsolari Txapel-

keta Nagusiagaitik) prestatu behar, hori ere badator eta.

Bertso saioen kopuruak nabarmen egin du gora. Zuk ere igarri duzu?

Kopuru aldetik, iaz ere gauza dezente antolatu zen. Pandemiaren eraginez, saio musikatuak eta aretokoak nagusitu ziren hile horietan, udan ezohikoak badira ere. Aurten, beste formatu batzuk berreskuratu dira: jaietakoa, poetoetakoa, kale girokoa...

Ingurukoak asko zorabiatzen dituzu oporretan?

Norberari baino eragiten ez badio, tira. Inguruan dituzunen planak hankaz gora ipintzea da arazoa. Oraindino behintzat ez dit karga handirik suposatu. Oraingoz, udan okupatuta egotea albiste ontzat hartzen dut. Ingurukoek beste erantzun bat emango lukete, beharbada. Batek daki (barrez).

Udan, gurago duzu jai giroko saioetan abestu?

Saioa ondo badoa, berdin digu areto batean zein kale kanto batean abesten egon. Esango nuke aurten sokak nasaitzeko premia dugula, formatu antolatuetatik irten eta libreago aritzeko beharrez. Bai saioei, bai gaietarako dagokienez. Bake-roetako botoia askatzeko sasoi da uda, nasai ibiltzekoa.

Aurten Txapelketa Nagusia dator. Badu eraginik udara begira?

Denoi eragiten digu, kontrakoa

gura badugu ere. Txapelketa urteko udak bere alde ona ere badu. Bertsolariok esperimentatzeko baliatzen ditugu plazak. Nor dabilen gehiago entrenatzen ikusteko ere balio du, eta nor dabilen lasaiago ikusteko. Gutxi-asko, beti irteten du txapelketaren gaiak. Eta inork gogoraziko ez balit ere, nik neuk gogoratuko nioke neure buruari. Batzuetan animatu egiten zara, eta beste batzuetan estutu. Jokoaren parte da eta norberak hartu behar dio neurria.

Aukera ona da ikusleentzat hasiberriak bertsoan entzuteko eta bertsolariontzat eurekin kantatzeko

Aurpegi gazte berriak hasi dira agertzen plazan.

Aukera ona da ikusleentzat hasiberriak bertsoan entzuteko eta bertsolariontzat eurekin kantatzeko. Azkenaldian, hainbat hasiberrigaz tokatu zait kantatzea. Gure belaraldiko artean, hainbat bider irten du gai horrek, eta geroago eta sarrigo aipatzen dugu. Pozgarria da aurpegi berriak plazan ikustea.

JAIK • IGOR GALARZA

Udak zeozer badakar, ospakizuna da hori. Berrizen, Zornotzan, Otxandion, Mallabian, Mañarian... Durangaldean ez dago jai faltarik. Euskal Herriko gainerako herrietan ere ez. Txosnagunea ezinbestekoa da hainbat herritako eragileentzat. Gorka Zuazua Jai-Kiten dabil lanean, txosna-muntatzaile.

Nondik nora ibili zara asteen?

Santutxun (Bilbo) eta Santurtzin txosnak kentzen ibili gara. Elantxoben bat muntatzen... baina asteen kentzen ibili gara, batez ere.

Zenbat txosna ipintzen dituzu udan?

Ipini eta kendu, asteen hamar bat izango dira. Uda osoan, 150 aldi izango direla kalkulatu dut, 75 txosna.

“Egia esan, espero baino hobeto doa uda. Jendea herriko jaietarako gogotsu dagoela ikusten da”

Igarri duzu alderik pandemia aurreko eta oraingo erritmoan?

Ganorazko azkenengo udagaz alderatuta, 2019koagaz, orain topera gabiltzala igarri dut. Gainera, txosnagune inguruan giroak

“Heltzen garenean, jendea prest eta gogoz egoten da txosnak muntatzen hasteko”

Gorka Zuazua otxandiarra Berrizko Jai-Kit muntaketa enpresagaz dabil Euskal Herriko hainbat herritako jaietan txosnak ipintzen eta kentzen uda osoan. Uda garaian bakarrik, 75 txosna ipini eta kentzera heldu daitekeela azaldu du

gora egin duela igarri dut, jendea gogotsu dabilela. Eta, entzun dudana gaitik, karpak muntatzen ibiltzen diren enpresak, soinu teknikariak, eta orokorrean jaiaren inguruan dabilzanak topera dabilta.

Hori ez da seinale txarra, behintzat.

Ez. Egia esan, espero baino hobeto doa uda. Jendea herriko jaietarako gogotsu dagoela ikusten da. **Jendeak zuen lana aintzat hartzen duela igartzen duzu?**

Bai. Herri askotan, heltzen garenean, bertako jendea prest eta gogoz egoten da txosnak muntatzen hasteko. Gainera, oso giro ona egoten da eta asko eskertzen dute. Beste istorio bat da txosnak kentzea. Bat edo bi agertzen dira, baina giro ona egoten da.

Eguraldia da zuen areririk handiena?

Hala da, bai. Ez da berdina 24 gradutan lanean ibiltzea, edo 34 gradutan. Horrelako beroak sekula ere ez ditugu izan. Gainera,

12 orduz lan egiten dugu. Eguntan bero larriak tokatu zaizkigu, baina hotza eta euria ez dira hobeak. Neguan euripean, lana apur bat luzatzen bada, eta busti-busti eginda bazaude... egun horiek ere gogorak izaten dira.

Zelakoa da txosna-muntatzaile baten uda? Zelan banatzen dituzue opor egunak?

Astetik atera dugu lanaren berri, eta, beraz, maniobra gutxi egin daiteke. Baina, normalean, asteburuetan jai izaten dugu, astebururako txosnak muntatuta egon behar izaten dute eta. Barikuak ere patxadatsuk izaten ditugu. Beraz, tira, horrek arnasa apurtxo bat hartzeko tartea ematen digu.

Langileok taldean zabilzate uda osoan. Taldea osatzea garrantzitsua da.

Lagun taldea gara, denok ezagutzen dugu elkar. Denok sartu gara lanean ezagun bat edo lagun bat dagoelako bertan. Hori oso garrantzitsua da.



Gorka Zuazua Albarado

Txosna muntatzailea

OTXANDIO | 1980

“Prebentzio lanik egingo ez bagenu, 40-50 erreskate egin beharko genituzke egunero”

Mikel Gonzalez berriztarra lanpetuta ibiliko da udan. Sorosle eta uretako motorretako

AISIA • I.G.

Mikel Gonzalez geratu barik dabil lanean udan, begi-belarriak zoli. Jendeak aisia segurtasunez goza dezan arduratzen da. Zarauzko hondartzan sorosle lanetan dabil, eta uretako motoekin irteerak egiten ditu Zumaiian.

Zarauzko hondartzako neurriak kontuan hartuta, lan asko egingo duzue.

Zarauzko hondartzak horixe du. Gu ohituta gaude 900 bat metro luze diren Bizkaiko hondartzetara, baina Zarauzkoak kilometro bi eta erdi ditu. Gainera, hondartza honetan ohitura handia dago surferako, eta jende asko dator horretara. Beraz, geratu barik gabiltza. Egun eguzkitsuetan, batez ere.

Zelan lan egiten duzue?

Zarauzko hondartzan surflari eta bainulari asko elkartzen dela da arazoa. Egoera hori kudeatzea ez da erraza izaten, surflariak olatua dagoen lekuan ipini behar dituzue

eta. Bainularia ezin da edozein lekutan libre bainatu, korranteak itsaso barrura eramango lituzke eta. Olatuek hondartzara bueltatzen laguntzen dute. Gure lana prebentzioan oinarritzen da batez ere, prebenituz gero arazoari atea zarratzen dizkiozulako. Horrela, beti egongo da erreskate gutxiago.

“Bezeroak behin probatzen duenean, uretako motoak arrakasta handia izaten du”

Zer gertatuko litzateke prebentzio lanik egin ezean?

Prebentzio lanik egingo ez bagenu, 40-50 erreskate egin beharko genituzke egunero. Eta bederatzirez orduz gaude lanean. Fisikoki

erronka handia izango litzateke hori. Hala ere, ez dugu polizia lanik egin gura. Une oro txistua jo eta jo bazabiltza, azkenean jendeak ez dizu jaramonik egingo. Garrantzitsua da bainulariek jakitea zergaitik mugatzen ditugun bainu guneak, eta zergaitik ipintzen ditugun bandera gorriak. **Sorosle lanak badu alde txarrik?**

Bainulariak kexaka ibiltzen dira askotan, eguraldi onagaz surflarientzako gunea oso handia delako, eta euren txikiagoa. Baina ez dakite surflariak egoten diren gune hori ez dela segurua bainularientzat. Surflariek taula dute lotuta oinean, eta, beraz, badute zeozer ur gainean egoteko. Bainulariek, ez. Hori da, beharbada, alderik txarrena. Gune batekoak bestera joaten direnean txistuka ibili behar izatea.

Soroslea ez ezik, monitorea ere bazara.



Mikel Gonzalez Aldekoa

Monitorea eta soroslea

BERRIZ | 1984

Bai. Uretako motoekin irteerak egiten ditut Zumaiako Redymar enpresan. Gure ibilbideak ditugu, eta zelan gidatu behar den eta abar erakusten dugu. Bezeroak behin probatzen duenean, uretako motoak arrakasta handia izaten du. 16 urtetik gorakoek gidatu dezakete, baina familiak ere etortzen dira. **Zelako irteerak egiten dituzue?** Motoak eskaini dezakeen gozamenaz gainera, Zumaiako Flyschera eta halako lekuetara joaten gara.

Euskal Herrian daukaguna pribilegio bat da. Horregaitik, motoan ibili eta bainu bat hartzeaz gainera, Euskal Herriko kostaldea ere erakusten dugu.

Joaten zaizue Durangaldeko jendea?

Bertakoak zein kanpokoak datoz. Esaterako, joan zen asteen katalanak, frantsesak, Arrasateko kuadrilla bat... izan genituen. Berriztik eta Abadiñotik ere etortzen dira. Ezagutzen naute eta badakite non lan egiten dudan.

Durangoko hainbat familiak Getxoko udaleku baten kontrako auzibideak hasi ditu lekua "osasunerako kaltegarria" delakoan

Durangoko bost ume daude kaltetuen artean. Gurasoek umeen bila joan behar izan dute Getxora, seme-alabak handik ateratzera. Euren begiekin ikusi dute instalazioen egoera "negargarria". "Zikinkeria, instalazioen egoera tamalgarria eta arriskua" azpimarratu dituzte. Udalekuaren jardura etenda dago

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Getxoko Udalak bertako udaleku baten jardura geldiarazi du, "instalazioetan atzemandako osasun-garritasunik ezaren aurrean". Joan zen domekan eman zuten jardura eteteko agindua, guraso batzuek egindako jakinarazpen bati esker, hain zuzen ere. Udalekuetan parte hartzen zebiltzan 50 umeek etxera bueltatu behar izan zuten egonaldia amaitu aurretik. Kalteturiko umeen artean, Durangoko bost familia daude eta gutxienez hiruk auzibideak hasi dituzte udalekuaren kontra. Asteon, Getxoko udaltzaingora jo dute salaketa ipintzera.

"Sinestezina izan da, izugarria. Dena zegoen zikin, leku guztietan zegoen arriskua. Putzu septikoak gainezka, koltxoak apurtuta, kanpin-denda zaharkituak, argindar instalazioak manipulatuak, komun bi baino ez zeuden ume guztientzat, egundoko hatsa... oraindino sinetsi ezinik nabil", dio udalekuak kalteturiko Durangoko ume baten

amak. 12 urteko alabak lehen aldia zuen udaleku batzuetan. "Pozik, oso gogotsu joan zen", dio. Eta hantxik hasi zen dena, joan zen astelehenean, hilaren 11n. "Udalekuak uztailaren 11tik 21era zeuden

programatuta. Egonaldia Galeako futbol zelai zaharraren ondoko baserri batean egitekoak ziren.

Baina hasieran egonaldi zoragarria izango zela zirudienak beste itxura bat hartu zuten egunek

aurrera egin ahala. "Zapatuan, hilaren 16an, telefonoz deitu genion alabari. Umeak etxera etorri gura zuela esaten zidan. Pentsatzen nuen esajeratzen zebilela, umeen kontu horietariko bat zela. Baina

begiraletariko batek bideo konexioa egin genezan eskatu zigun, eta irudien bitartez han zeukate-na ikusi nuen. Zapatuan bertan hara joan, eta umea atera egin nuen handik", azaldu du gurasoak. "Egia esan, begiraleek asko lagundu digute. Eurak udalekuak kalteturiko bigarren biktimak izan dira", gaineratu du.

Beste guraso batek domekan atera zuten umea handik. "Umeak esaten zidan oso pozik zegoela. Lagun asko egiten zebilela, baina lekua kaka zaharra zela. Bertan agertu eta umea jaso genuen. Inori parterik eman barik sartu ginen eremura, umea jasotzera. Han ez zegoen ezelako kontrolik", kritikatu du gurasoak.

50 umeen gurasoak udalekuaren kontrako neurriak hartzekotan dira. Durangoko hiru familiak, adibidez, auzibideak hasi dituzte. Getxoko udaltzaingogaz hartu-emanetan dabilta, eta salaketak ipini dituzte Kontsumo-biden.



Udalekuak Galeako futbol zelai zaharrean izan dira, instalazioen ondoko baserri batean.

Abuztu amaieran hasiko dira gaztetxea izandako eraikina botatzen

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak jakinarazi du Uribarri kalearen 23. zenbakiko eraikina abuztu amaieran hasiko direla botatzen, eta botatzeak dakartzan gastuak eraikinaren jabeek ordainduko dituztela. Horrenbestez, badirudi behinola notariotza, propietate erregistroa eta gaztetxea izandakoak bere azken egunak dituela. Eraikina 1964an altxatu zuten. 1970ean, oster, Auzitegi Gorenak "ilegala" zela ebatzi zuten, errekarren ibilguan eraikita zegoelako.



Eraikinaren gaur egungo egoera.

Durangoko jaietako kartel irabazleak 900 euro eskuratuko ditu

Zabalik dago bertan parte hartzeko aukera. Durangarrek boto bidez aukeratuko dute jaiak iragarriko dituen kartela

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak martxan ipini du sanfaustoak iragarriko dituen kartel lehiaketa. Artista afizionatuek zein profesionalak parte hartu dezakete bertan. Lagun bakoitzak hiru lan aurkeztu ditzake gehienez. Obra guztiak jatorrizkoak eta argitaratu bakoak izan beharko dira. Lanak aurkezteko, egileak udalaren web orriko eskaera inprimakia bete beharko

du. Irabazleak 900 euro jasoko ditu. Kartel irabazlea aukeratzeko, fase biko prozesua egingo dute. Epaimahaiak zazpi kartel finalista aukeratuko ditu lehenengo. Gero, herritarrek zazpi horien artean aukeratuko dute zein den irabazlea, botoa emanda. Lanak aurkezteko azken eguna abuztuaren 31 izango da, 14:00etan. Obrak Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan entregatu beharko dira.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko uztailaren 22a
20. urtea - 902. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Gorka Palacios Euskal Herriko espetxe batera lekualdatuko dutela iragarri dute

Eusko Jaurlaritzak erabakiko du zein kartzelatarara eramango duten preso durangarra



Durango Sarek iazko abenduan eginiko mobilizazio bat.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Espainiako Espetxe Erakundeek hamaika euskal preso Euskal Herriratuko dituela iragarri du, tartean, Gorka Palacios preso durangarra.

Eusko Jaurlaritzak erabakiko du zein espetxetara lekualdatuko duten Palacios; Basaurira (Bizkaia), Martutenera (Donostia) edo Zaballara (Araba) mugituko dute. Ibai Ayensa, Jose Lorenzo

Ayestaran, Ainhoa Garcia, Eneko Gogeaskoetxea, Juan Carlos Iglesias, Francisco Javier Makazaga, Ainhoa Mugika, Juan Antonio Olarra, Juan Ramon Carasatorre eta Luis Mariñelarena dira Palacios gaz batera Euskal Herriko espetxetara ekarriko dituzten presoak.

Gorka Palacios 2003ko abenduan atxilotu zuten Frantzia; 2018an espainiaratu zuten. Hainbat urtez Murtzia II espetxean egon ostean, Estremerako (Madril) kartzelan egon da azken hiletan.

Bizikleta martxa

Asteburu honetan, Sarek bizikleta martxa bat egingo du Izan Bidea dinamikaren barruan, "espetxe politikaren eta salbuespen neurrien amaiera" aldarrikatzeko. Martxa Etxarritik hasiko da, gaur, eta Donostian amaituko da, domekan. Eskualdean ere geldialdia egingo du. Durangora gaur ailegatuko da, Etxarritik. Bihar Azpeitirako bidea hartuko du.



Eguaztenean hasi ziren kanpalekua muntatzen.

Gazte Topagune Sozialista martxan da Durangon

Eguaztenean ekin zioten egitarauari. Asteburu honetan kontzertuak izango dituzte, ekintzarik potoloena

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Euskal Herri osotik ailegaturiko gazte sozialisten topaleku izaten ari da Durango egunotan. Ikasle Abertzaleek eta Gazte Koordinadora Sozialistak Topagune Sozialista hasi zuten eguaztenean, eta zapatara arte egingo dituzte jardunaldiak. Gaurko egitarauan, adibidez, bo-xeo ikuskizuna, bertso-trama,

zine tailerrak eta ideia komunista lantzeko askotariko berbaldiak nabarmentzen dira. Bihar, bazkaria, ekitaldi politikoa eta kontzertuak izango dituzte. Azken horietan, J.Martina eta Rodeo taldeen emanaldiak dira azpimarragarrienak. Gune nagusia Landako Gunean kokatu dute, eta kanpalekua Zuhatzola ondoko zelai batean.

ABADIÑON, GEREDIAGA AUZOAN SALBADORE JAIK 2022

Abuztuak 5, barikua

- 20:00etan Donien Atxa jaso eta txapligu hotsez jaiari hasiera ematea.
- 21:00 aldera jai batzordeak EUSKAL OKELAZ egindako gisatua banatuko du jai eremura doazen artean.
- 22:30ean, Los Cazahuates Noaindar taldeagaz mexikar erromeria.

Abuztuak 6, zapatua

- 12:00etan Meza.
 - Meza amaieran loren bedeinkazioa egingo da. Lora bana hartu ahal izango dute mezara datozenek.
 - Ondoren, Hamabi Harri taldeko dantzarien saioa eta, ohikoa duten legez, aurrekua eta atzeskua dantzatzeko dute gero.
 - Goizean zehar Paella txapelketa. Paella ontziak 14:30erako aurkeztu beharko dira
- Sariak:
- 75 euro, poltsa bete jenero eta txakolin kutxa bat.
 - 50 euro eta txakolin Kutxa.
 - 25 euro eta txakolin Kutxa.
- Gainerako parte hartzaileei hogeina euro emango zaie.
 - Dantzarien saioa amaitu ondoren, eguerdiko erromeria Lander eta Jon Ander trikitilariekin.

- 19:00etan Tortilla txapelketa.

Sariak:

- 60 euro, gazta bat eta ardo kutxa.
- 40 euro eta ardo botila bi.
- 20 euro eta ardo botila bi.

*Sariak jaso ez duten guztiei ardo botila bana emango zaie.

*Izena ematea, 18:00etatik aurrera egin ahalgo da. Tortillak 20:00etan aurkeztu behar dira.

- 22:30ean, Bertsolariak

- Maialen Lujanbio
- Andoni Egaña
- Amets Arzallus
- Nerea Ibarzabal

*Gai-jartzailea, Igor Galarza

- 00:00etan ERROMERIA LUHARTZ taldeagaz.

Abuztuak 7, domeka

- 17:00etan Briska Txapelketa

Sariak:

- 120 euro, garaikurrak eta botila bi xanpain.
- 70 euro, garaikurrak eta botila bi xanpain.
- 50 euro eta botila bi xanpain.
- 30 euro eta botila bi xanpain.

*Parte hartzeko, bikoteko 8 euro ipiniko dute.

- 18:00etan Umeen Jolasak

- 20:30ean Erromeria Ansorregi eta Larrañagaz.
- 21:00etan, Erromeri afaria. Entsalada, piperrak, Lumagorri oilasko izterrak eta postrea. Edariak, eta kafea. Afalostean erromeriak jarraipena izango du, gauerdia arte.

*Afarria 12 euro izango da eta aurrez txartela erosi beharko da 626945623 telefonora deituta, plazak mugatuak direlako. Afaltiarren artean, Mahalaren otzara bat zozkatuko da.

Antolatzailea: Gerediagako jai batzordea.

ETXE LAGUNTZAILEAK

Abadiñoko Udala | Serafin tailerrak | Eusko Label | Murueta nekazalturismoa | Larin elektrizitate etxea | Serratu itxiturak | San Antonio okindegia | Baque kafeak | Ederne arraindegia | Etxetxo Inmobiliaria eta Seijo pintura lanak.

OHARRAK

- Aurten ere jaien aldeko errifa egongo da salgai jaietarako txosnan. Errifaren zozketa jaien amaieran egingo da. Sariak eskuratzeko epea urriaren 31an amaituko da.
- 2022ko Hamabi Harriren kamisetak salgai egongo dira Salbadore jaietan.
- Jai- batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen ezbeharren erantzule egingo.

Kainabera Gobernuz Kanpoko Erakundeak jaurtiko du Ferixa Nausikoetako txupinazoa

Irailaren 3tik 11ra bitartean ospatuko dituzte aurtengo Elorrioko Ferixa Nausikoak. Egitarau zabala antolatu dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Kainabera Gobernuz Kanpoko Erakundeak kideek jaurtiko dute, aurten, Ferixa Nausikoetako txupinazoa. Urte biko etenaren ondoren, irailaren 3an, 20:00etan, jaurtiko dute txupinazoa eta orduantxe eman-go diete hasiera 2022ko Ferixa

Nausikoei. "Itxaronaldi luzea izan da, baina urte bi geroago gure Ferixa Nausikoak betiko moduan ospatuko ditugu berriro. Urte guztiak dira bereziak, baina hau, zalantzarik barik, gehien itxaron dugunetarikoa da, pandemiagaz bizi izan dugun guztiagaitik. Aurten bai, gure

jaiei izena ematen dien ohiko azoka bueltatuko da, eta hila-bete pasatxo barru gure kaleak animazioz eta dibertimenduz jantziko dira berriro", azaldu du Julene Lazkano Elorrioko Udaleko zinegotziak.

Aurreko urteetan lez, aurten ere herritar guztiak gozatzeko moduko jaiak diseinatu dituzte, eta jai eredu inklusiboa aurkeztu dute. Bederatzi egunean zehar, musika, umorea, antzerkia, erromeriak eta ikuskizunak egongo dira, besteak beste. "Gustu eta adin guztietarako egokia den jai programa diseinatu dugu", zehaztu du Lazkanok.

Bestalde, Libe Ajuriak irabazi du jaietako kartel lehiaketa. Jone Guenetxea ANBOTO astekariko zuzendariak 500 euroko saria eman dio.



Txupinazoa jaurtiko dutenak, udal ordezkariak, ANBOTOko zuzendaria eta kartelaren egilea.

Errogatiba, jubilatuen irteera eta bazkaria, abuztuaren 27an, Abadiñon

Jubilatuen bazkarian parte hartzeko, izena eman beharko da

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abuztuaren azken zapatuan, hilak 27, Urkiolarako errogatiba egingo da berriro, eta abadiñarrek urteroko ohitura berreskuratzeko aukera izango dute. Abadiñoko Udaletik jakinarazi dutenez, San Rokeren irudia Urkiolakako santutegira eramateko egingo duten errogatibak Muntzaratzeko Andra Mari ermitatik irtengo du, goizean goiz.

Bestalde, pandemiaren ondorioz bertan behera geratu ziren jubilatuen irteera eta bazkari herrikoia berreskuratuko dituzte aurten. Jubilatuentzat ipinitako autobusak 10:30ean irtengo du, Zelaietatik. 11:30ean meza egongo da eta herriko jubilatuen bazkari herrikoia 14:00etan izango da.

Ekitaldian parte hartu gura dutenek uztaillaren 29ra arte eman dezakete izena, udal bulegoetan —udaletxean eta Traña-Matienako bulegoan—. Irteerak eta bazkariak 15 euroko kostua izango dute.



Errogatibako artxiboko irudia.

Bittor Arginzonizen Etxebarri jatetxea, munduko seigarren jatetxerik onena



Bittor Arginzoniz jatetxearen aurrean.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Astelehenean, munduko jatetxerik onenen zerrendaren berri eman zuten, eta The World's Best Restaurant sailkapenaren arabera, Atxondoko Bittor Arginzonizen Etxebarri jatetxea munduko seigarren jatetxerik onena da. Danimarkako Geranium izendatu dute munduko jatetxerik onena, eta honen atzetik Central (Lima), Disfrutar (Bartzelona), DiverXO (Madril) eta Pujol (Mexiko) sailkatu dira.

2021ean, Atxondoko sukaldariak hirugarren postua eskuratu zuten zerrenda horretan bertan.

OAD zerrenda

Orain hilabete inguru, Europako hiru jatetxerik onenen

Orain hilabete, Europako hirugarren jatetxerik onenaren postua lortu zuen OAD zerrendan

artean kokatu zuten Arginzonizen jatetxea. OAD gastronomia gidaliburuak kaleratu zuen Europako jatetxerik onenen zerrenda.

Santixako eta Arrazolako jaiak atxondarren uda gozatzeko

Santixa auzoko jaiak asteburu honetan ospatuko dituzte. Arrazolako jaiak, ostera, abuztu erdialdean

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Udan ez da jai girorik faltako Atxondon. Asteburu honetan bertan, Santixa auzoko jaiak ospatuko dituzte. Zapatuan emango diete hasiera jaiei, uztaillak 23, txopo txikia jasota. Eguerdian, paella txapelketa egingo dute, eta, horren ostean, bingoa eta mus txapelketak egingo dituzte. Domekan, txapelketa berezia egingo dute: patatak ondoen nori zuritu. Egun horretan, umeen jolasak ere egingo dira. Iluntzea DJ Tatik girotuko du. Astelehen eguerdian emango diete amaiera jaiei, porragaz eta mus txapelketagaz.

Abuztuaren, Arrazolako jaiak

Abuztu erdialdean, Arrazolako jaiak ospatuko dituzte. Donien

Atxa abuztuaren 14an jasoko duten arren, bezperan emango diete hasiera jaiei. Abuztuaren 13an, Arrazola ezagutzeko ibilaldia egingo dute, eta baita mus txapelketa ere. 22:30ean, Sofokaos taldearen kontzertua eta Dja egongo dira.

Abuztuaren 14an, jubilatuen luntxa, talo-jana, monologoak eta Akerbetz taldearen erromeria egingo dira, besteak beste. Eta abuztuaren 15ean, herriko dantzariak, pilota partiduak eta triki, bertso eta pintxo potea egingo dira.

Abuztuaren 16an emango diete amaiera Arrazolako Andra Mari jaiei, paella txapelketagaz, asto probekin eta Erruki taldeagaz.



Ostalaritza gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Durango**



AI AMA
Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO
Tel.: 946 232 240

Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera.
Gozo eta osasuntsu gainera!

 **Abadiño**



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetakoko menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.

 **Zornotza**



XIBERU
Zezilia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946181758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 **Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988

Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.

 **Iurreta**



GAUARGI
Dantzari 4 behea, IURRETA
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 **Durango**



IBAIZABAL
Ibaizabal taldea, 2B - DURANGO
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.



Datozen urteetan 1.449 etxebizitza gehiago eraikitzea aurreikusi du Zornotzako Udalak

Udalbatzak Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriaren hasierako onarpenera aktibatu du, aho batez. Dena dela, oposizioak ez du bere kezka ezkutatu

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Biztanleriaren hazkundeari buruzko eztabaidak mahai gainera irten du Zornotzan. Zinegotziak Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriaren (HAPO) hasierako onarpenera aktibatu dute, aho batez. Datozen urteetan udalerriko lurrak zelan banatu eta zein erabilera eman aurreikusi dute planifikazio berrian. Honako hau da nobedatetarikoa: dokumentu berriak Zornotzan 1.449 etxebizitza gehiago eraikitzea aurreikusten du. Euretari 877 libreak izango dira eta babes ofizialekoak beste 572. Gobernu taldeak azpimarratu du HAPOak "kirurgia" bat izaten dela herriko biztanleria "gehiegi ez hazteko", eta, aldi berean, "herriko identitatea mantentzeko". Anartz Gandiaga hirigintza zinegotziak azpimarratu du "dokumentuan bizitzeko eta lan egiteko herririk onena izateko oinarriak" ezartzen direla. "Gure gazteek etxebizitza eskuragarriak izatea gura dugu; gure enpresekiko, merkataritzare-



HAPOa urriaren 31ra arte egongo da ikusgai.

kiko eta ostalaritzarekiko aktibo den herria gura dugu", azaldu du Gandiagak.

Oposizioko alderdi nagusiak, EH Bilduk, HAPOaren hasierako onarpenera babestu du, baina ez du bere kezka ezkutatu. Ander Uriar-

te bozeramaileak dio udalerriak "23.000 biztanleko langa" igaro dezakeela datozen urteetan. "Hau da gura duguna?", galdetu du. "Ez dugu hazkundera begi onez ikusten. Ez da horren ondorioen inguruko hausnarketarik egin", kritikatu du.

"Kirol azpiegiturak eta arlo horretako aurreikuspenak ez datoz bat biztanleriaren hazkunderagaz, ez dugu jardura ekonomikoetarako lurzorurik ikusten eta etxebizitzak ezin ditugu merkatuen esku utzi", adierazi du Uriartek.

Jardura ekonomikoa

Etxebizitzaz gainera, HAPOak lur industrialak eta jardura mistoak bultzatuko dituela adierazi du udalak. "Udalerririk erakargarria izaten jarraitu behar dugu industriarentzat, hau da, estrategikoa; horregaitik da garrantzitsua lurzoru industrialak eta gainerako jardura ekonomikoetarako lurzorua izatea, lehen sektorearen bultzadari ere keinu eginez. Garapen ekonomikoa eta garapen soziala behar ditugu", azaldu du Gandiagak.

Jendaurrean ikusgai

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra jendaurrean egongo da ikusgai, urriaren 31ra arte. Udal Bulego Teknikoaren beheko solairuan eta Zelaieta Zentroaren sarrera nagusian egongo da. Bestalde, aurkezpen publiko bat ere egingo dute, irailaren 15ean. Zelaieta zentroan izango da, 18:30etan. Herritarrek triptiko bat ere jasoko dute etxean.

Martxan da lurretako herrigunean enpresa berriak sortzen laguntzeko lehiaketa

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak martxan da Enpresa Proiektuen XIV. Lehiaketa. Iurretako herrigunean enpresa berriak sortzea bultzatzea du helburu ekimenak eta urriaren 31ra arte aurkeztu daitezke proiektuak. Irabazleak 6.000 euroko diru saria lortuko du. Saria hiru zatitan banatuko da. Batez

Urriaren 31ra arte aurkeztu daitezke proiektuak. Irabazleak 6.000 euroko diru saria lortuko du

ere, aberastasuna eta enplegua sortzeko gai diren enpresak, eta produktuetan, prozesuetan eta zerbitzuetan ideia berriak barneratzen dituztenak sustatu gura ditu udalak. Eta, era berean, herriaren birgaitzean eragingo duten proiektuak. Ekimen ekintzailea bultzatzea ere badute helburu, "herrian euren enpresa edo komertzioa sortzea erabaki dutenei bidea erraztea".

Zalduaren mendi martxak dozenaka lagun batu du

Elkartearen 50. urteurrenako ekitaldien barruan antolatu dute

ZALDIBAR • A. M.

Mende Erdiko jarduna ospatzeko, Zaldua Kirol Elkarteak ekitaldi sorta antolatu du aurtent; tartean, 43. mendi martxa. Mendi taldeko kideak pozarren agertu dira mendi martxak izandako harreragaz; izan ere, dozenaka lagun batu zen uztailearen 16an egindako martxan. Eguraldi onaz gozatzeko aukera eduki zutela nabarmentzeaz

gainera, parte hartzaileen presuntasuna eta jarrera ere azpimarratu dituzte. 07:00etan hasi zuten martxa, Zaldua plazatik. Martxa 25 kilometrokoa izan zen, 1.500 metroko desnibel positibokoa.

Zaldua kirol elkarteak 1973. urtean sortu zuten eta ondo erroturik dagoen taldea da; izan ere, 3.000 biztanleko herrian 1.000 bazkide inguru ditu.



43. Zaldibarko mendi martxa



Berrizko San Lorentzo ermita.

San Lorentzo dantza taldearen 70. urteurrena

Berrizko dantza taldeak abuztuaren 7an egingo du urteurrenaren ospakizuna, egun osoko egitarauagaz

BERRIZ • A. M.

Berrizen egun osoko egitaraua antolatu dute San Lorentzo dantza taldearen zazpi hamarkadako ibilbidea ospatzeko. 11:00etan hasiko da ospakizuna, Atxanittetik San Lorentzorako kalejira batez; 12:00etan meza egongo da, eta, ostean, dantzarien saioa. Gero, herri bazkaria egingo dute; txartelak Berrizko estankotan daude salgai, 18 euroan (15 euro 16 urtetik behera-

koentzat). Eguna borobiltzeko, erromeria egongo da Aiko taldeagaz.

San Lorentzo dantza taldea 1952. urtean sortu zuten. Alejandro Aldekoa txistulari eta dantza irakaslearen gidaritzapean zortziko talde bat batu zen San Lorentzo ermitan. Eguneko egitaraua antolatzeko, San Lorentzo dantza taldeak Berrizko Udalaren eta San Lorentzo auzoko kofradiaren laguntza izan du.

Martxan da udako argazki lehiaketa.
Igo zure argazkiak
irailaren 16ra arte

UDAKO
8. ARGAZKI
LEHIAKETA

 **anboto**



Durungaldeko 2021eko
argazkia
IRABAZLEA



Durangaldetik kanpoko
2021eko argazkia
IRABAZLEA

2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Al Camporen eskutik, bidaiatzeko maleta bat Euskal Herriko produktuz betea.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Al Camporen eskutik, bidaiatzeko maleta bat beren markako Gourmet produktuekin.
- Publikoaren saria: tablet bat.

ANTOLATZAILEA

 **anboto**

LAGUNTZAILEAK


Informetika & Telekomunikazioak


DURANGO


Garai
Landetxea

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean

“Oihandiko ibilbideari ezin nion amaiera politagorik eman; abentura zoragarria izan da”

Oihandiren izenean, jaietako pregoilaria izan da Maritxu Garmendia. 50 urteko dedikazioaren ostean, abesbatza utziko du



Maritxu Garmendia Garmendia

Oihandi abesbatzako kidea
OTXANDIO | 1943

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

1970ean Oihandi abesbatza sortu zenetik, bertako kidea izan da Maritxu Garmendia Garmendia (1943, Otxandio). Harrezkero, mende erdi baino gehiago joan da eta pandemiaren ospatu ezin izan zuten urteurrena ospatzen dabilzan honetan, une aproposa irudituz ziklo bati amaiera ipintzeko. Abesbatza utziko du, baina bihotzean betiko eramango duela dio.

Zergaitik erabaki duzu abesbatza uztea?

Urtean entsegu asko dira, neguak luzeak egiten dira eta apur bat gogorra egiten zait. Asko sentitzen dut utzi beharra, e? Oso gustura ibili naiz eta. Denean ibili naiz, elizan ere abesten nuen. Baina pentsatzen dut orain une aproposa dela uzteko. Oihandi abesbatzatik zeu egon zinen udaletxeko balkoian txupinazo egunean.

Neu izan naiz abesbatzako zaharrena eta neuri eskaini didate. Ohore bat izan da. Oihandiko ibilbide luzeari ezin nion amaiera politagorik eman; abentura zoragarria izan da. Zelan gogoratzen dituzu hasierako urteak?

Jende gehiago genbiltzan. Orduan, 50 edo gehiago ginen. Hasieran, eskola maisua izan zen gure zuzen-

daria. Interes itzela ipini zuen guk abesten ikasi genezan. Urtean irteera batzuk egiten genituen herririk herri kantatzeko.

Orduan ohitura handiagoa zegoen taldean abesteko?

Bai. Orain tabernetan eta ez da kantatzen, baina lehen kuadrilla handia ginen eta tabernetan abesten genuen; bariku eta zapatu gauetan eta domeketan, geratu barik. Nire senarra, Marino Soloeta, ere abesbatzan ibili zen. Ni baino lehenago hasi zen.

Joan zen astean, 50. urteurreneko kontzertu berezia egin zenuten elizan. Zelan joan zen?

Oso emozionantea izan zen. Abesten eta negarrez geunden aldi berean. Eliza bete egin zen. Asko entseatu genuen dena behar zen

Lehen, kuadrilla handia ginen eta tabernetan abesten genuen; bariku eta zapatu gauetan eta domeketan, geratu barik

moduan irteteko. Txomin Bengoak urteurrenagaitik sorturiko abesti berri bat ere abestu genuen. Pena bakarra da ETB ez zela etorri kontzertua grabatzera.

Zure kontzerturik bereziena izan da? Nire bihotzean betiko geratuko den kontzertua da. Begoña Basilikan eman izan ditugunak ere bereziak izan dira. Han oso koro onek abesten zuten eta gu urtero joan izan gara.

Mañariko kultur etxean aerotermita bidezko berokuntza sistema ipini dute

Udalak 38.835 euro inbertitu ditu lan horiek egiteko. Aurretik, Herriko tabernan, udaletxean, liburutegi zaharrean eta haurreskolan ipini dute sistema bera

MAÑARIA • J.D.

Oraintsu, propano bidezko berokuntza sistema kendu eta aerotermita bidezkoa ipini dute Mañariko kultur etxean. Alet enpresak egin ditu lanak, eta udalak 38.835 euro inbertitu ditu horietarako. Enpresa berak udaleko beste hainbat eraikinetan ere ipini du aerotermita sistema lehenago: Herriko Tabernan, udaletxean, liburutegi zaharrean eta haurreskolan.

Udaleko eraikinetan gasa kendu eta aerotermita sistema ipinita, ingurumen aldetik jasangarriagoa den sistema baterako urratsa eman gura dute, udal arduradunen esanetan. Horregaz batera, dirua aurrezteko aurreikusitako dute.



Mañariko Errore Bustintza kultur etxea.

Gaur amaitu dira Satxibuk 66 gazte gaz egindako Mallabiko udalekuak

MAÑARIA • J.D.

Urtero lez, Mallabiko Satxibu aisialdi taldeak udaleku finako antolatu ditu herriko eskoletan. Bertan parte hartu duten 66 gazteek gaur izan dute azken eguna. Aurten, ohikoa dena baino adin tarte zabalagoarentzat—12 barik 16ra artekoentzat—egon da zabalik udalekuak. Aurten ez dutelako udaleku ibiltaririk antolatu hartu dute erabaki hori. Ibiltaria ez egitearen arrazoi nagusia antolaketarako jende falta izan da. Ildo horretatik, etorkizunera begira, Satxiburen ardura eramango duten gazteen errelebo bila dabilzala adierazi dute aisialdi taldeko kideek. Gaur egun dabilzanek sei bat urte daramatzate eta ziklo bat bete dutela uste dute.

Hamar saharar gazte izurtzan emango dute abuztua, Río de Orogaz

IZURTZA • J.D.

Río de Oro elkarteari eskerrak, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetan bizi diren eta aniztasun funtzionala duten hamar gazte izurtzan emango dute abuztua. 11 urtera arteko gazteak dira eta zapatu goizean helduko dira Euskal Herrira, hegazkinez, Río de Oroko kideek azaldu dutenez. Hemen dauden bitartean, hainbat ekintza egingo dute: Durangoko igerilekuetara joango dira, Donostiako zientzia museora, eta piraguan eta zaldi gainean ibiliko dira, besteak beste. Hemendik joan aurretik, jai bat antolatuko dute Izurtzako pilotalekuan Durangaldeko familiekin eta Hamadako Izarrak taldekoekin.

“Iazko abuztuan egondako sikate maila uztailearen erdirako gainditu dugu aurten”

Aitor Onaindia Bereziartuak (Durango, 1976) berez ernatzen diren basoen inguruko tailer praktikoa eskaini du Garain



GARAI • EKAITZ HERRERA

Aitor Onaindia Bereziartua (Durango, 1976) baso ingeniaria eta Basoa Fundazioko zuzendari teknikoa da. Asteon Garain egon da berez ernatzen diren basoen kudeaketa praktikoa buruzko tailerra eskaintzen. Klima aldaketan sartuta gaudela eta basoek egunotako beroak igarri dituztela dio.

Zer azertu duzue ikastaroan?

Arboleak propaguluak askatzen dituzte euren ugalketarako. Izan daitezke sasiak, indarra hartu eta aldaxka bihurtu diren adar zatiak, sustriak. Horrela birsortzen dira, eta, hain zuzen ere, horixe da berez ernaturiko basoa, modu horretan hazten dena. Berezkoa da, baina gizakiak lagundurikoa izan daiteke, zainketak eginda, inausita. Dena dela, berdin dio basoa berezkoa den ala gizakiak baldintzaturikoa, gizakia ez dago naturatik kanpora eta. Gizakia naturaren zati da. Pandemiak erakutsi digu gauza txiki batek gure lekuan ipintzen

gaituela. Guk egin dezakeguna basoari laguntzea da. Ikastaroan hori azertu dugu.

Egunotako beroekin basora begira ipini gara. Zelan dago basoa?

Basoak ondo igarri du egun hauek. Dena dela, arbolak lurrari loturiko bizidunak direnez, genetika aldetik prestatuta daude egoera gogorrean aurre egiteko. Hori bai, dena muga batzuen barruan dago. Klima aldaketa honeguz ikusten gabiltzana da tenperatura eta hezetasun baremo batzuetara ohituta egon diren arbola horiei beste tenperatura eta hezetasun baremo batzuk datozkiela gainera. Eta joera hori luzatu egiten bada, denek ez dute iraungo.

Ipiniko zenuke adibideren bat aldaketa hori ilustratzeko?

Berriatua herrian pinudi bat dugu ikerlanak egiteko. Atmosferan, lurrean eta arboletan mugitzen den ur kantitatea aztertzen dugu, besteak beste. Ikusi duguna da iazko abuztuan egondako sikate maila uztailearen erdirako

gainditu dugula aurten. Horrek esan gura du landarediak hilabete estres gehigarria duela. Fotosintesi sasoia, hazkunde sasoia, hilabete murriztu zaie. Eta hori gogorra da.

Basoa prestatuta dago joera horri aurre egiteko?

Esan dudan moduan, landareak prestatuta daude honi aurre egiteko. Baina kontua da joera hori urte batean egin beharko dieten aurre ala joera hori urteetan errepikatuko den. Zantziek erakusten dute arbolak eta landareak txarto pasatzen hasi direla dagoeneko. Orain urte batzuk pinuekin gertatu zen. Arbolak makaldu egin daitezke, eta makaltzen badira indar gutxiago dute.

Badator klima aldaketa ala dagoeneko klima aldaketan gaude?

Klima aldaketan gaude. Eta, horren aurrean, erantzun batzuk eman behar ditugu. Basoa bera hobeto konfiguratzeko badugu, baso egitura hobe bat egiten badugu, genetika hobe bat, ura biltze gaiturako duten lurrak lantzen baditugu, dena hobeto erregulatzeko badugu, basoari laguntzen ibiliko gara. Klima aldatzen badugu, landareek bizitzeko duten markoa aldatzen badugu, lehengora ohituriko arbolak ez dira marko berrira ohituko.

BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta



Tabirako igerilekuen ondoko horma margotu dute.

'Euskaraldia, hitzez ekiteko garaia' murala margotu dute Tabiran

Ekimena 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo dute

DURANGO • E.H./M.Z.

Euskaraldiaren mezua zabaldu guran, Tabirako igerilekuetako horma margotu dute Durangon. Beroari aurre eginez, astelehen iluntzean pintura poteak hartu eta lanari ekin zioten. "Murala orain margotu dugu, udan, udazkenean hitzez ekiteko garaia datorrela presente edukitzeko", azaldu dute Euskaraldiko Du-

rangoko batzordeko kideek sare sozialetan.

Aurtengoa Euskaraldiaren hirugarren aldia izango da, eta 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo da. Hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen ekimenak euskaldunen, erakundeen eta eragileen aktibazioa indartu gura du, eta ariguneen dinamika bultzatu.

Politikan

Garazi Errasti
Silloniz
EH-Bildu



Berritu Aramotz

Durangoko Aramotz auzoko herritarrek meritua dute, benetan.

16 atari, 64 bat etxebizitza eta etxebizitza bakoitzeko batez besteko 2 edo 3 bizikide.

Pertsona hauek guztiak batur, proiektua azaldu eta denek aho batez honi baiezkota ematea ez da gauza erraza. Inbertsio handiko obra bat ordaindu eta lanak jasateko prest dauden auzotar denen oniritzia lortu eta aurrera egiteak badu merezimendua.

Eta hori ez da dena, 2016. urtetik martxan dagoen proiektuaren atzerapenak, pandemiaren ondoriozko gelditzea eta prezioen igoera, Espainiako gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak eragindako atzerapenak, hamaika batzar eta erantzunik eza... hau dena jasan eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden 4 hiri-berroneratze proiektuetatik aurreratuen eta lehen izaten jarraitzeak ere badu onkaia.

Administrazio arteko harremanak garrantzitsuak dira bai, batez ere, proiektu baten etorkizunaren erantzule den administrazio batek proiektua kudeatzen duen administrazio txiki bati zama jarri eta berau atzeratzen duenean.

Baina herriko auzo oso baten geroa kolokan dagoenean, eta bertako biztanleek urteetan zehar izugarritzko lana egin dutenean, politikoki, salbatzaile insignia jarri eta bakoitzaren erantzukizuna saihestea ez da bidezkoa.

Nik, Durangoko Udaleko gobernu taldeko EH Bilduko zinegotzi naizen aldetik, Aramotz auzoko herritarren lana nabarmendu nahi dut, beraien esfortzurik gabe, administrazio arteko harreman ezin hobek izan arren, ez baikenuke proiekturik izango.

Durangaldea asteen

Durangoko Madalena auzoan jaiak ospatuko dituzte uztaillaren 22tik 24ra bitartean

DURANGO | Durangoko Madalena auzoan jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Luhartzen erromeria, paella eta tortilla janak, umeentzako jolasak eta beste hainbat ekimen egongo dira uztaillaren 22ko barikutik 25eko domekara bitartean. Auzo Alai Madalenako Auzokideen Elkarteak da jaietako antolatzailea.

Hildakoen erraustak botatzeko gune bat atonduko dute Abadiñoko hilerrian

ABADIÑO | Abadiñoko Udalak obrak hasi ditu herriko hilerrian erraustak botatzeko lorategi bat egiteko. Horrez gainera, klausuroa, kapera eta errausteta instalazioa hartzen duen eraikina margotu egingo dute. 32.562 euro ipiniko dituzte lan hauetarako. Udazkenerako amaituta egotea aurreikusten dute.

Hamadako Izarrak hartuko dituen 12 umeak bihar helduko dira Euskal Herrira

ATXONDO | Ume sahararrak ohikoa baino geroago helduko dira aurtun Euskal Herrira. Bihar ailegatuko dira eta eurretari 12 Axpen dagoen aterpetxera joango dira, Hamadako Izarrak elkartearen eskutik. Aurtun datozenak, gainera, lehenengoz datoz Euskal Herrira. 8 urteko umeak dira.



Xaboa bota dute Ezkurdiko iturrira, eta udalak mantentze-lanak egin beharko ditu

DURANGO | Durangoko Udalak sare sozialetan jakinarazi duenez, zapatu gauean ezezagun batzuek xaboa bota zuten Ezkurdiko iturrira. Udalak garbitu egin behar izan zuen domeka goizean, eta mantentze-lanak hasiko ditu orain. Ez da horrelako bat gertatzen den lehenengo aldia. 2020ko abuztuan ere ezezagun batzuek xaboa bota zuten bertan. Bitsak kaltea eragin zuen iturriko hoditerian, eta zikinkeria errekaraino ailegatu zen. Udalak ondarea zaintzera eta elkarbizitzara deitu ditu herritarrak.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Arrike Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

1# MUNDUARI BIRA EMAN ZION ONTZIA
Joseba Sarrionandia / Ares (Pamiela)

2# M, AMA, EME, UME
Erika Lagoma / Estibxu Fernandez (Elkar)

3# ERMITAK BIDE, DURANGALDEA BIZI
Ramon Castillo / Ibon Murua (Alpino Tabira)

#salduenak

Eskaerak WhatsApp ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum ez ordaindu eta etxean jaso

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

R.P.S. 214/06
A. Urreta podólogo

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Garaiako jaiak 2022



**Santixau jai
zoriontsuak
opa dizkizuegu!**



GARAIKO UDALA

Garaiko jaiak 2022

Uztailak 24, domeka

14:00 Jubilatuen bazkaria.

19:00 Donien Atxa jasotzea.

Ondoren, dantzarien azken entsegua.

Ondoren, Lumagorri oilasko pintxoak dastatzeko aukera.

21:30 Erromeria LOTXO taldeagaz.

Uztailak 25, astelehena

10:30 Kalejira txistulari, dantzari eta agintariekin.

11:00 Meza nagusia San Migel elizan.

Ondoren, Santiagoren irudiaren ohiko prozesioa

Elizaberriraino, agintariena eta Gernikako arbola dantzatzuz.

Ondoren, ezpata-dantzarien saioa.

18:30 Erregelaren erakustaldia.

Ondoren, trikitilariak.

Uztailak 26, martitzena

10:30 Kalejira txistulari, dantzari eta agintariekin.

11:00 Meza nagusia Elizaberrin.

Ondoren, Santiagoren irudiaren ohiko prozesioa parrokiaraino, agintariena eta Gernikako arbola dantzatzuz.

Ondoren, ezpata-dantzariak plazan.

Jarraian, gizonezkoen erregelak eta geroago emakumeenak.

18:00 Tortilla txapelketa. Partaideek hauexek ekarri beharko dituzte: sua, arrautzak, olio, patatak, tipula eta gatza. SARIAK:
1- Amantala eta 80 €
2- 60 €
3- 40 €

21:30 Erromeria IRATZAR taldeagaz.

Uztailak 27, eguaztana

16:30 Umeentzako jolasak, frontoian.

1- Txapela eta 60 €
2- 40 €
3- 30 €
4- 20 €

18:00 Txistuman Elizaberrin.

Uztailak 28, eguena

11:00 – 13:00 / 16:30 – 19:00: umeendako Jolas Parkea.

17:30 Briska txapelketa (izen-ematea: 5 € bikotea).

SARIAK:

1- Txapela eta 60 €
2- 40 €
3- 30 €
4- 20 €

Uztailak 29, barikua

13:30 Gazteen poteo musikatua.

Ondoren, bazkaria eta ginkana.

17:00 Pilota partidak.

20:00 Bertsolariak:

Ander Sarriugarte

Oihana Arana

Iruri Altzerreka

Sarai Robles

Gai-jartzailea: Ander Elorriaga

22:30 HATXE TALDEA.

Ondoren, KILIMAK TALDEA.

Uztailak 30, zapatua

14:30 Herri bazkaria.

Ondoren, Mariskal DJ.

22:30 LUHARTZ.

Uztailak 31, domeka

11:00 Meza nagusia.

Ondoren, dantza saioa.

Ondoren, igel-jokoaren tokiko txapelketa (izen-ematea: 2€).

SARIAK:

1- 50 €
2- 30 €
3- 20 €

18:00 Asto proben erakustaldia.

Elordi (Berango)

Irazola (Mallabia)

Construcciones Torrontegui (Fika)

Anarketa (Garaik)

20:00 Trikitilariak.

21:30 Herri afaria (nork berea ekarri beharko du).

Abuztuak 1, astelehena

15:00 Garbiketa auzolanean



Kilimak taldea.

Gazte Eguna, Kilimak, Luhartz eta asto probak Garaiko jaietan

Uztailaren 24an, Donien Atxa jasota hasiera emango diete jaiari. 21:00etan, Lotxo taldearen erromeria izango da

JAIK • J.G.

Badatoz Garaiko jaiak, egitarau beteagaz. Uztailaren 24an ekingo diete jaiari, Donien Atxa jasota. Ondoren, dantzari azken entsegua ekingo dute. Afalorduan, Lumagorri oilasko pintxoak dastatzeko aukera izango da.

Uztailaren 25ean, meza izango da San Migel elizan, 11:00etan. Ondoren, tradizioari jarraituz, Santiagoren irudia ohiko prozesioan aterako dute Elizaberriraino, agintariena eta Gernikako arbola dantzatzuz. Uztailaren 26an, alderantzizko bidea ekingo dute. 11:00etan, meza ekingo dute Elizaberrin, eta ohiko prozesioa ekingo dute parrokiaraino, agin-

tariena eta Gernikako Arbola dantzatzuz.

Aurtengo nobedadeen artean, Gazte Eguna antolatuko dute. Herriko gazteak uztailaren 29an batuko dira, 13:30ean, poteo musikatuan. Ondoren, bazkaritarako batuko dira eta ginkana ekingo dute. 20:00etan, bertsolarien saioa izango da. Ander Sarriugarte, Oihana Arana, Iruri Altzerreka eta Sarai Robles arituko dira kantuan. Ander Elorriaga izango dute gai jartzaile. Musikari dagokionez, Lotxo, Iratzar, Hatxe eta Luhartz erromeria taldeak igoko dira oholtzara. Eta Kilimak taldeak euskal runba doinuak eramango ditu Garaia.





MAÑARIKO
UDALA



EZ EZETZ DA!
JAIK ERRESPEZUZ GOZATU!

Mañariko jaiak 2022

Abuztuak 12, barikua

20:00 Penny Fleck, herriko plazan

Abuztuak 14, domeka

13:00 Txupinazoa, kanpai hotsa eta Pitxitxiren igoera

14:30 Herri bazkaria

Ostean, igel eta mus txapelketak

16:00-18:00 Zirku tailerra haurrentzat

18:30 Gazte olimpiadak

22:00 Kontzertuak: Iheskide + Dupla + Nikotina

4:00-7:00 Bien bitartean, autobusa Mañaritik Durangora etengabe ibiliko da. Doan

Abuztuak 15, Andra Mari eguna

7:00 Garbiketa

10:00 Kalejira txistulariekin

11:00 Meza Kirikiño abesbatzagaz. Ondoren, dantzariak

12:30 Afizionatuen pilota partiduak. Ondoren, **pilota profesionala:** Peña Il-Uriondo / Agirre-Aretxabaleta.

16:30-18:30 Haurrentzako herri kirolak eta betiko jolasak

17:00 Karabina jaurtiketa (Ateneo Cinegetico Mugarrak antolatuta)

19:00 "GAZTE" Ikuskizuna, publiko osoari zuzenduta - (HIKA teatroa eta OINKARI dantza taldea)

20:30 Txistorrada

22:30 Mikel Urdangarin

Abuztuak 16, San Roke eguna

MOZORRO EGUNA. Gaia: Munduko herrialdeak

11:00 Meza. Ostean, dantzariak

12:00 Paella txapelketa

14:30 Paellak aurkeztu eta sari banaketa

18:00 Briska txapelketa (Errose Bustintza kultur etxean)

19:00 BURRUNBA elektrotzaranga

22:00 Pitxitxiren agurra.

Iheskide, Dupla eta Nikotina taldeek kontzertua emango dute Mañariko jaietan

Goizaldean, doako autobusa ipiniko dute Durangora joateko. Hilaren 15ean Mikel Urdangarinek joko du, plazan



Iheskide taldeko kideak Barakaldon jotako zuzenekoan. AITZOL ZAMALLOA LEKERIKA

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañarian, askotariko ekintzekin ospatuko dituzte jaiak abuztu erdian. Abuztuaren 14ko domeka eguerdian, Rafa Bizkarrak eta Lourdes Gorrotxategik jaurtiriko txupinazoagaz hasiko dituzte jaiak. Bizkarrak eta Gorrotxategik Mañariko Denda eraman dute 50 urtean, eta iaz erretiroa hartu zuten. Urte askoan mañariarrei emandako zerbitzua eskertzeko modua da. "Horrelako zerbaitetarako gutaz akordatzeak asko esan gura du guretzat. Oso pozik gaude", adierazi du Bizkarrak.

Musika kontzertuak

Musikari dagokionez, askotariko estiloekin gozatu ahal izango da. Abuztuaren 14ko kontzertuak dira horren erakusgarri. Iheskide

talde elorriarraren punk rock doinuak ez ezik, rap eta hip-hop musika ere entzungo da Dupla eta Nikotina taldeekin. Egun horretan, 04:00etatik 07:00etara bitartean, doako autobusa etengabe ibiliko da Mañaritik Durangoko Tabirara.

Biharamunean, abuztuaren 15ean, Mikel Urdangarinek emango du kontzertua. Bere lehenengo lana kaleratu zuenetik 25 urte bete dira aurten eta musikari zornotzarra bira batean murgilduta dabil hori ospatzeko.

Aurten, jai batzordeak herriko gazteen laguntza izan du hainbat ekintza aurrera eramateko: hilaren 14ko gazte olimpiadak eta 15eko herri kirolak gazteen ekimenari eskerrak antolatuko dituzte.

Bestelakoan, aurreko aldietan arrakastatsuak izan diren ekimeinei eutsi diete. Esaterako, abuztuaren 16ko paella txapelketa jendetsua izaten da. Aurreko aldia, elektrotzaranga bat ekarri zuten txapelketa osterako, giro polita sortu zuen herrian, eta aurten errepikatu egingo dute.

Maderas Zugazagoitia y Agirre S.L.

Aldegoiena Auza, 2-A · MAÑARIA
Tel/Faxa: 94 681 87 98 · zuagi@hotmail.com

HONTZA MUSEOA

DURANGALDEKO NATUR ZIENTZIEN MUSEOA

GORA MAÑARIKO JAIAK!

EBARISTO BUSTINZA KIRIKIÑO KALEA, 18
48212 MAÑARIA (BIZKAIA) / TL.: 94 621 65 55

www.hontzamuseoa.eus

GARATE

Mañondo Baserría, 10
Tel.: 946 815 600
48213 Izurtza

Mallabiko jaiak 2022



*Ondo pasatu
Andra Mari
jaietan!*



MALLABIKO UDALA

Mallabiko jaiak 2022

ABUZTUAK 14, domeka (Umeen eguna)

11:00 Meza Jasokunde parrokiari

11:30-13:00 Mallabiko trikitilariak kaleak
girotzen

12:00 Alkate txikiak umeen txupinazoa jaurtiko
du. Gazte Alaiak dantza taldekoek aureskua
egingo dute.

12:00-14:00 / 16:00-18:00 Umeentzako haur
parkea, herriko frontoian

18:00 Bits festa, parkean

18:00-21:00 Kale animazioa Les enfants
taldeagaz

19:00 Txupinazoa, Karmele Gisasolaren eskutik

19:30 Txokolatada, parkean

21:30 Pilota partiduak, Mallabia I Kirol Etxean

1) Elordi-Morgaetxebarria // Alberdi-Aretxabaleta
2) Artola-Albisu // Jaka-Imaz

Pilota partidurako sarrerak. Sarrerak abuztuaren
1etik 12ra salgai, udaletxean:

-Mallabiko langabe, ikasle, jubilatua eta
pentsiodunentzat 12 euro, justifikazio txartela
erakutsita.

-Gainerako mallabitarrentzat 18 €.

-Partidu egunean, leihatila 20:30ean zabalduko da,
eta sarrerek prezio bakarria izango dute: 25€

23:00 Erromeria Basajaun taldeagaz, parkean

ABUZTUAK 15, astelehena (Andra Mari eguna)

11:00 Meza Jasokunde parrokiari

Ondoren, **Mallabiko dantzariak**, plazan. Euria
egiten badu parkeko aterpean

17:00 Tute txapelketa, Kontzejuzarrean

Izen-ematea: 10 euro bikoteko

Sariak: 1. saria 120 € eta garaikurra

2. saria 100 €

3. saria 80 €

4. saria 60 €

17:00 Mallabiko Gizonezkoen XXXII. eta
Emakumezkoen II. Harri-jasotze saria Harri

Txikia, herriko frontoian

Gizonezkoak 100kg-ko zilindro zaharra / 100kg-ko
bola

Emakumezkoak 62,5kg-ko zilindro zaharra /
62,5kg-ko bola

Parte-hartzaileak: Mikel Lopetegi 'Urra', Xabat
Olaizola, Iraitz Arruti, Hodei Iruetagoiena 'Izeta IV',
Imanol Royo 'Lartain', Paulo Azpiazua, Jon Gisasola
'Zelai V', Petre Bulgarea eta Enrique Largo. Lierni
Osa, Ainitze Zumeta, Karmele Gisasola 'Zelai III',
Udane Ostolaza, Marina Blanco eta Patricia Martin.

Sariak:

1. 900€ garaikurra eta txapela

2. 750€ eta garaikurra

3. 600€ eta garaikurra

4. 500€

Gainerako parte hartzaileentzat 300 €-ko dieta

Dagoen marka hausten duenari, 200 €

Sari hauek atxikipen fiskala izango dute

19:00 Ricky teniseko irakaslea kale antzerkia,
parkean. Euria egiten badu, CIP-eko futbito zelaian

22:30 Amak taldearen ikuskizuna, parkean. Euria
egiten badu, herriko frontoian

ABUZTUAK 16, martitzena (San Roke eguna)

11:00-14:00 Paella eta marmitako lehiaketak.

Izen-ematea, 11:30ean. SARIAK:

MARMITAKOAK: 1.saria 110 €

2. saria 55 €

PAELLA: 1.saria 110 €

2. saria 55 €

Mallabiko trikitilariak animatuko dute giroa

14:00 Paella eta marmitako lehiaketako sari
banaketa

14:15 Jubilatuen bazkaria, Kontzejuzarrean

16:00 Tolin mariatxia jubilatuentzat,
Kontzejuzarrean

17:30 Kuadrillen arteko jolasak. Saria:
pintxotarako 20 txartel

20:00 Mallabitar guztientzat txahal errea
(pintxo bat, euro 1) eta sagardoa doan parkean

20:30 Erromeria Luhartz taldeagaz, parkean

Ganadu garraioa
Juan Luis Irazola

Tel.: 609 794 504
943 170 651
48269 MALLABIA

Focs

Industrias FOCS, S.L.

TROKEL PROGRESIBOEN DISEINUA ETA FABRIKAZIOA
TRESNERIAREN FABRIKAZIOA
HARI BIDEZKO PIEZAK ETA DOITASUN HANDIKO BARNERATZEA

Goitondo poligonoa - Goikoa, z/g - 48269 MALLABIA - Tel.: 943 171 744 - E-mail: focs@focs.es

www.focs.es

metales
OSMA

METALEN BERRESKURAPENA,
BIRZIKLAPENA
ETA KUDEAKETA

Tel.: 943 172 810
676 27 15 07

RECICLAJES METALÚRGICOS
JESÚS M.ª CORDÓN, S.L.

Goitondo-Goikoa poligonoa, z/g - P3A - 6/8 pabellona
48269 MALLABIA (Bizkaia)
Apdo. 181 • 48260 ERMUA
T./F.: 943 174 581 - M. 619 569 595

MAQUINARIA Y MULTIHUSILLOS, S.L.
Maymu

BURU ANITZEKO TORNUETARAKO
ORDEZKO PIEZEN ETA PIEZA OSAGARRIEN
BERRERAIKITZEA, KONPONKETA,
MANTENUA ETA SALMENTA

Pol. Ind Goitondo Behekoa -
naves 3 / 4 MALLABIA-BIZKAIA
Tel.: 94 657 00 94 - maymu@maymusl.com
www.maymusl.com

hierros
arrate, s.a.

Goitondo Industrialdea, MALLABIA
Ermuatik Markinarako bidean
127 PK - 48260 Ermua
Tel.: 943 170 612 / 943 170 616
www.hierrosarrate.es

ZELAI

HILARRIAK
KANPOSANTUKO
LANAK

Zelai - Mallabia
zelai@atxitxe.net
Tel.: 656 706 468 /
656 706 467

"Mallabiko herriari eskerrak eman gura dizkiot errekonozimendu honengaitik"

Karmele Gisasola Zenikazelaia 'Zelai III.'-ak jaurtiko du txupinazoa Mallabian



MALLABIA • JONE GUENETXEA

Karmele Gisasola 'Zelai III.'-ak txiki-txikitik ezagutzen du herri kirolen mundua. Familian, aita eta osaba maisu ditu harri jasotzen eta aizkoran. Urte oparora izan du, dozena bat txapel eskuratuta. Egindako lanaren errekonozimendu lez, Mallabiko txupinazoa jaurtiko du.

Zelan sentitzen zara? Zelan hartu duzu txupinazoa botatzeko eskaera?

Alkateak deitu zidan ea txupinazoa jaurti gura nuen galdetzeko. Baietz esan nion. Iaz Martxoaren 8an omenaldia egingo zidatela proposatu zidatenean zalantza gehiago izan nuen. Gero konturatu nintzen merezi zuela, aurretik ezin izan zutela beste emakume batzuek egin, herri kirolean ez dugulako hainbeste leku izan. Nonbaitetik hasi behar zen. Mallabiko herriari eskerrak eman gura dizkiot errekonozimendu honengaitik.

Pentsatu duzu pregoian zer esan?

Ez dakit zehatz-mehatz zer esango dudan, baina emakumeei bideratuta egongo da. Ez dezagun ahaztu lehen emakumeek ez zutela aukerarik eduki, emakume izatearren. Plaza gure lekua ere bada, eta aldarrikapen hori egingo dut. Hauxe da gure momentua eta aprobetxatu egin behar dugu.

Herri kirolean, emakumeen ikusgarritasuna inoizko handiena da. Zu ez zara hasiberria. Zelan bizi izan duzu prozesu hori?

Aitak 20 urtean ez zuen plazarik konpartitu emakumeekin. Neska batek harri jasotzen hasi gura zuen eta aitak erakutsi zion. Apurka-apurka gertatu den aldaketa bat izan da. Txapelketa asko berriak izan dira guretzat. Ez genekien zein pisu ipini. Pentatloian, adibidez, bost proba dira. Mutiletan zehaztuta dago zenbat egin behar duten eta zenbat kilo. Nesketan 200 gutxi da, 300 asko? Moldatzen

joan garen gauza bat izan da orain arte ez delako ezer egin, Euskal Herriko harri-jasotze txapelketetan pisuak jaitsi egin dira, bestela ez litzateke eta txapelketarik egingo. Kontziente naiz orain dela 10-15 urte harri jasotzen ibili ziren neskek guk gaur egun dugun baino maila hobea zutela. Pisu gehiago jasotzen zuten eta oso zentratuta zeuden lan horretan. Kapazitate sinestezi-na zuten.

“Iaz, dozena bat txapel baino gehiago irabazi nituen. Hau errepikatzea oso gatxa izango da”

Zelako egutegia duzu udan?

Ekitaldiz beterikoa. Erakustaldiak ematen gabilta han eta hemen, eta txapelketak ere baditugu. Urtea amaitu arte astebururo dugu zeozer.

Zein modalitatetan aritzen zara?

Bizitzan sekula ere ez zait gustatu gauza bakar batean zentratzea. Ez dut horretarako balio. Horregaitik, trontzan hasi nintzen, ingudeagaz jarraitu nuen, harriak probatu nituen gero, eta aizkora azkenik. Hasierako urteak emankorrak izatea dakar horrek, baina gauza bakar batean ondo zentratzen ez banaiz, ezingo dut benetan lan ganorazkorik egin.

Oraingoz, ondo doakizu. Iaz garaipen mordera lortu zenuen.

Iaz, dozena bat txapel baino gehiago irabazi nituen. Euskal Herriko hiru modalitatetan, harri jasotzen, ingudean eta pentatloia, Sherpako aizkorakoa, Bizkaiko aizkorakoa, harri-jasotzekoa eta ingudekoa. Hau errepikatzea oso gatxa izango da. Beste neska batzuk ere hasi dira, eta oinarri sendoa dute kirolean. Gainera, oso zentratuta daude modalitate batera.

DECOMESA

DECOLETADOS Y MECANIZADOS, S.A.

INDUSTRIARAKO

SOLUZIO

INTEGRALAK



Excavaciones

BOLIÑA
Mallabia - Bizkaia

• 629 340 410 •

• 618 954 280 •

excavacionesbolina@hotmail.es



HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN
KUDEATZAILE BAIMENDUA EUX/008/04



HIERROS & METALES

SAINZ

TXATARREN SALEROSKETA

Alto de Areitio - 48269 MALLABIA • Apdo. 58 - 48260 ERMUA

Tel.: 943 171 400 - Fax 943 171 489

hierrossainz@hierrossainz.es

www.hierrossainz.es

URANGA



Goitondo Ind. pab. 1 - MALLABIA

Tel. 943 17 97 17

Whatsapp 685 75 18 48

www.urangaautoak.com

**IBILGAILUEN
KONPONKETA ETA
MANTENIMENDUA**



Ondo pasau jaixetan!

BETEARTE

Hondakin ez
arriskutsuen zabortegia

BI-3342 errep. Areitio garaia MALLABIA pk. 38


Tel.: 943 170 307 - Faxes: 943 176 160

info@betearte.com www.betearte.com

GOIMEK

GOIMEK ere mallabiarrekin

Ondo pasa
Andra Mari jaietan!



DANOBATGROUP

www.goimek.com





Okm: *batzen gaituen distantzia*


**30€
urtean!**

Egin zaitez anbotokide!

**> anboto
kide**

Okm:

*batzen gaituen
distantzia*



 **anboto**
kide

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

LA PERLA

- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAHIA HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan



Kerobia + Dupla + Zirkinik Bez!

MUSIKA OTXANDIO :: Uztaileak 23, 22:30

Kerobiak eta Duplak kontzertua joko dute, zapatuan, Santamañetan

2014an hamalau urteko ibilbideari amaiera eman eta gero, iaz berriro batuko zirela iragarri zuen Kerobia talde nafarrak. Harrezkero, disko bi kaleratu dituzte, eurerarik bat bikoitza, eta abesti berriak plazarik plaza aurkezten dabiltza. Zapatu honetan, Otxandion emango dute kontzertua, santamaña jaien barruan. 2019an sorturiko Dupla taldeagaz partekatuko dute ohol-tza. Aguraindarrek iaz kaleratu zuten azken diskoa: *Nahieran*.

Euren ibilbideko bigarrena da eta punk eta rap doinuak uztartzen ditu. Kontzertuak amaituta, Zirkinik Bez! talde zornotzarraren erromeriak emango dio amaiera jaialdiari.

Kerobia *Hilak* diskoagaz bueltatu zen. Zortzi abestiren bitartez, etorkizun baten bila lurretik irten zuten misioetako tripulatuzaileen istorioa kontatzen du diskoak. Gero, *Konstelazioak* etorri zen, taldearen 20 urteak ospatzeko binilo bikoitza.

Uztailearen 22an

DURANGO madalenak

Meza, 12:00etan, Madalena auzoan.

Txistulariak eta luntxa, 12:30etan.

Krskitin dantza taldearen saioa, 13:00etan.

Tortillak hartzea, 19:00etan.
Argazki erakusketa, ermitako plazan.

ELORRIO musika

David Walters Trio, 20:00etan, Lariz Jauregian.

OTXANDIO santamañak

Kalerik Kale kantari, 19:30etan eta 20:30etan, Soinubelen eskutik.

Soka dantza, 20:00etan, plazan.
Playbacka, 22:30etan, plazan.

ZORNOTZA jaiak

Kuadrillen kalejira, 13:00etan, Kalbario plazatik.

Kuadrillen arteko bazkaria, 15:00etan, Zelaieta parkean.

Yogurinha Borova eta Albina Stardust drag, 16:00etan.

Sakatu elektrotxaranga, 18:00etan, Luis Urrengoetxea kalean.

Txistularien XXII. Kontzertua, 21:30etan, Zelaieta parkean.

Artista gonbidatua: Jon Allende.

Supercremalleras + Tremenda Jauria, 22:30etan, Zubiondo plazan.

Musika gaztetxeroa, 00:30etan, Matrailu gaztetxean.

Uztailearen 23an

ATXONDO musika

N20GU kolektiboa, 19:00etan, Arrazolako Amillena bentan.

ATXONDO santixauak

Txopo txikia apaindu eta altxatu, 12:30etan, Santixan.

Paella txapelketa eta herri bazkaria, eguerdian, Bazkalostean, **bingoa**.

Mus txapelketa, 17:00etan.

Lutxurigaz eta Olartegaz musika egun guztian zehar.

BERRIZ dantza

New Orleansko dantzak (Komeka-AEB), 19:00etan, Berrizko komentuan.

DURANGO musika

Kontzertuak: Rodeo + Ziakhus & Dürüm Solo Karne + Hoke & Louis Amoeba + J. Martina 2.0., 19:00etan, Gazte Topagune Solialistako Gune Nagusian.

Siroko + Lemak + Konorte + Igtaia, 19:00etan, Sutegian.

Ondoren, **Dj Elvis Caino eta Dj Wary**.

Dj Elvis Caino eta Dj Wary.

DURANGO madalenak

Zumba klasea, 10:30etan, Fray Juan Zumarraga kalean.

Umeen jolasak, 11:30etan, ermitako plazan eta Francisco Ibarren.

Trikipoteoa, 12:30etan.

Paella herrikoa, 13:00etan, Rincón tabernak antolatuta.

Tute, briska eta igel txapelketak, 16:00etan.

Kontzertua: Wanted

Salaheddine & Quiet Guest, 16:00etan, Madalena.

Cars eta txalupak, 17:00etan, Fray Juan Zumarraga kalean.

Musika: Angel eta bere taldearen musika akustikoa, 17:00etan, Plateruen plazan.

Luhartz, 21:00etan, Fray Juan Zumarraga eta Francisco Ibarra kaleen irletan.

Atsedendia., 22:30etan.

Luhartz, 23:30etan.

ELORRIO musika

Aldapeko Basque Latin Jazz, 20:00etan, Lariz Jauregian.

OTXANDIO santamañak

Otxandioko bandaren kalejira, 11:00etan, Ondoren,

dultzaineroen kalejira.

Meza, 12:30etan, San Martinen.

Paella txapelketa, 14:00etan, San Martinen.

Ziortza eta Leire trikitilariak, 16:30etan, San Martinen.

Sakatu elektrotxaranga, 19:00etan, kalerik kale.

Kontzertuak: Kerobia + Dupla + Zirkinik Bez!, 22:30etan.

ZORNOTZA jaiak

BASKET 3x3, 10:00etan, Zubiondo parkean.

Marmitako lehiaketa, 10:30etan, Zubiondo parkean.

Erromeria: Gozategi, 17:30etan, Zubiondo plazan.

Kolpez Blai Batukada, 19:00etan, Gernika plazan,

Andra Mari plazan eta Zezilia Gallartzagoitian.

Kolpez Blai Batukada,

21:00etan, Kalbarion eta Luis Urrengoetxean

Kanp berbena Jamaica Show Orkestra, 22:30etan, Zelaieta parkean.

Kontzertua: Romea eta Merina Gris, 23:00etan, Zubiondo plazan. Gero, **Dj jaia: DJ Romea**.

Malakias&Maixa, 03:00etan, Matrailu Gaztetxean.

Uztailearen 24an

ATXONDO santixauak

Meza, 11:30etan, Santixan.

Ondoren, **Andasto dantza taldea**.

Igel txapelketa, 13:30etan.

Briska txapelketa, 17:00etan.

Umeen jolasak, 17:30etan.

Ondoren, **mozorro lehiaketa eta sari banaketa**.

Txokolatada, 18:30etan.

Patatak hobetu nork zuritu, 19:00etan, Ondoren, **DJ Tati**.

DURANGO madalenak

Haurrentzako marrazki lehiaketa, 10:30etan, Madalena.

Herri bazkaria, 10:30etan hasita, Ermitan eta Francisco Ibarren.

Etxean egun daiteke, eta baita tokian bertan ere. Epaimahaiari platerak aurkeztea, 13:30etan.

Herri kirolak, 11:30etan, Fray Juan Zumarraga kalean.

Herri bazkaria, 14:30etan.

Txokolatea eta madalenatxoak, 17:00etan, Madalena ermitan eta Francisco Ibarren.

Dantzaldia: Alai bikotea

18:00etan, Francisco Ibarra kalean.

OTXANDIO jaiak

Diana eta kalejira, 07:30etan.

Sokamuturra, 08:00etan.

Meza nagusia, 12:00etan.

1936an bonbardaketan

hildakoei omenaldia,

13:00etan, Andikonan.

Limonada, 13:45etan, plazan.

Otxandioko eta Araikioko

banden kontzertua, 14:00etan, plazan.

Herriarren arteko pilota

partiduak, 17:30etan, plazan.

Pilota partiduak, 19:30etan,

plazan. II. plazaz plaza txapelketa.

Ados pilota elkartearen eskutik.

'Gu gara legea' antzerkia

(Barsanti), 20:00etan, plazan.

Erruki taldea, 22:00etan.

Agur Santa Marina, gauerdian.

ZORNOTZA jaiak

Baserritarren azoka, goizean, Zezilia Gallartzagoitia kalean.

Amorebieta-Etxanoko

XI. Jai Lasterketa,

10:00etan, Zubiondo parkean.

Ontzi-Modelismoaren

erakustaldia, 11:00etan,

Jauregibarran.

Umeentzako egurrezko

jolasak, Euskal Herria plazan

(11:00-14:00/17:00-19:00).

Euskal Herriko Artzai

Txakurren Txapelketa,

11:00etan, Jauregibarran parkean.

Musika kalean: Triki Piu,

12:00etan, Gernika Plazan,

Andra Mari Plazan eta Zezili Gallartzagoitian.

XIII. Pala Txapelketa: Herriko Txapelketako finalak, 17:00etan, Amorebieta IV Frontoian. **Emakumeen IV. Pala Txapelketako finalak** ere jokatu dira.

'YIJAAAA!' kale antzerkia euskaraz, 18:00etan, Herriko plazan.
Danborrada, 22:00etan.
Kontzertuak: La Topadora eta Kilimak, 22:30ean, Zubiondo plazan.
Dj Txurru, 23:30ean, Zelaieta parkean.
Elkartasun kontzertuak, 22:30ean, Matrailu Gaztetxean.

Uztailaren 25ean

ATXONDO santixauak
Meza, 11:30ean, Santixan.
Porra txapelketa eta saiheski pintxoak salgai, Gemikako piperrekin.
Mus txapeketa, 13:00etan.
Otzara eder baten zozketa, 14:00etan, jaiak agurtzeko.

ZORNOTZA jaiak
Familientzako jolas interaktiboak eta minigolfa, Gernika plazan (11:00-14:00/17:00-19:00).
Kuadrillen arteko herri kirolak, 19:00etan, Zelaieta parkean.
'Por Hacer Un Favor' kale antzerkia (Trapu Zaharra), 20:00etan, Herriko plazan.
Mariachi México Lindo: 'Sí Señor', 21:00etan, Gernika plazan eta Zezilia Gallartzagotian.
Mariachi México Lindo: 'Sí Señor', 22:00etan, Zelaieta parkean.
Dron ikuskizuna, 22:30ean eta 23:30ean, Jauregibarrian.

Xabi Aburruzaga, 23:00etan, Zubiondo plazan.

Uztailak 26an

ZORNOTZA jaiak
Umeentzako zirku tailer ireki inklusiboa, 11:30etik 13:00etara, Zelaieta parkean.
Zirkoteke umeentzako zirku ikuskizuna, 13:00etan, Zelaieta parkean.
Umeen danborrada, 18:30ean.
Kuadrillen arteko playback lehiaketa, 21:30ean, Zelaieta parkean.
Kontzertua-dantza: Julen Alonso eta Oinkari dantza taldea, 22:00etan, Zubiondon.

Uztailaren 27an

IURRETA zinema
Pintxopotea, 20:00etan, Abadetxean.
Kale zinema, 22:00etan.

ZORNOTZA jaiak
Gaztetxoentzat wipe out parkea (12:00-14:30/16:00-17:00).
Kuadrillen arteko Santanatzuko bazkaria, 15:00etan, Zelaieta parkean.
Kuadrillen arteko wipe out, 17:00etan.
Zornotza11 kolore eta Zorhontzaren Agurra, 19:00etan, Zelaieta parkean.
Rockalean Elektrotxaranga, Egan, 22:00etan, Zelaieta parkean.
Camela, 22:30ean, Zubiondo plazan.
Talde sorpresa eta

txokolatada, 01:00etan, Matrailu Gaztetxean.

Uztailaren 28an

DURANGO ikuskizuna
'Luze edo motz' (Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai), 20:00etan, Tabira parkean.

ELORRIO musika
Gau Giro: Barrena eta Sala, 20:00etan.

Uztailaren 30ean

ATXONDO musika
Astoturfer + Talde Sorpresa, 20:30ean, Arrazolako Amillena bentan.

ELORRIO ikuskizuna
'The Nearerthal a Sapiens' (David Vento eta Logela multimedia), 22:30ean, plazan.

Uztailaren 31n

DURANGO antzerkia
'Akabo!' (BarSanti konpainia), 20:00etan, Santa plazan.

Abuztuaren 5ean

ELORRIO kofradi jaiak
Afariak, 20:00etan, Argiñetan.
Erromeria: Eingo, 22:30ean.

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Abuztuaren 6an

DURANGO ikuskizuna
'Nunavut. Glaziarren lurraldea' (Neri(h)ari eta Myriam Pérez Cazabón), 20:00etan, Ezkurdin.

ELORRIO kofradi jaiak
Meza, 12:30ean, Argiñetan.
Kofradien bazkaria, 14:00etan. Ondoren, **Ixone eta Alaitz trikitilariak**.
Afariak, 20:30ean.
Erromeria: Altzaporr, 22:30ean.
Bolo txapelketa, 22:30ean. Bizkaiko txapelketarako puntuagarria.

Abuztuaren 7an

ELORRIO kofradi jaiak
Eliza ospakizuna, 12:30ean, Argiñetan.
Auzoko dantza zaharrak, 13:00etan.
Umeentzako parkea, 17:30ean.
Bertso-kantu afaria: Jon Maia eta Uxue Alberdi, 20:30ean. Gai jartzailea: Eneko Abasolo 'Abarkas'. Musikariak: Beñat eta Ugaitz.

Abuztuaren 8an

ELORRIO kofradi jaiak
Paella jana, 14:00etan, Argiñetan.
Afariak, 20:30ean.
Disco festa, 22:30ean.

Abuztuaren 12an

DURANGO antzerkia
'Nao-Now-Nau' (Barre konpainia), 20:00etan, Aurora Abasolo parkean.

Abuztuaren 25ean

DURANGO musika
Kontzertuak: HAN +Eutsi! + Kun-k, 18:00etan, Santa Anan.

Abuztuaren 28ra arte

DURANGO erakusketa
'Georgia O'Keeffe' (María Herreros), Durangoko Arte eta Historia Museoan.

Uztailean eta abuztu

ABADIÑO erakusketa
'Mendi Gardenak' akuarela erakusketa, Urkiolako Parke Naturaleko parketxean. Eñaut Aiertzagüena iurretarrak parke naturaleko 10 paraje jaso ditu akuarela egindako koadroetan.

Zinema

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **Un novio para mi mujer**
barikua 22: 19:15 / 21:30
zapatua 23: 17:00 / 19:30 / 21:30
domeka 24: 18:30 / 20:30
astelehena 25: 18:00 / 20:15
martitena 26: 18:00 / 20:15
eguaztena 27: 19:30

• **La memoria de un asesino**
barikua 22: 21:30
zapatua 23: 19:00 / 21:30
domeka 24: 18:00 / 20:30
astelehena 25: 20:15
martitena 26: 18:00 / 20:15
eguaztena 27: 19:30

• **Men**
barikua 22: 19:15 / 21:30
zapatua 23: 19:00 / 21:30
domeka 24: 20:30
astelehena 25: 18:00 / 20:15
martitena 26: 20:15
eguaztena 27: 19:30

• **Padre no hay mas que uno 3**
barikua 22: 19:00
zapatua 23: 17:00
domeka 24: 18:00
astelehena 25: 17:45
martitena 26: 17:45



Itziar Jagüe Sextet

MUSIKA ELORRIO :: Uztailak 24

Soul doinuak gozagarri Musikaire jaialdiaren eskutik, domekan

Itziar Yagüe abeslari gasteiztarra entzuteko aukera egongo da, domekan, Elorrion, Musikaire jaialdiaren eskutik. Madrilen bizi den artistak 2020an kaleratu zuen bere lehenengo diskoa, *Delicious*. Afroamerikar musika tradizioko generorik klasikoenak arakatzuz sorturiko sei abesti batzen ditu lan horrek, eta oso kritika onak izan ditu. Abesti horiek entzun eta gozatzeko aukera izango dute

Lariz Jauregian emango duen kontzertura doazenek.

Blues bokal eta jatorrizkoa, generoaren damarik ospetsuek egiten zuten bidea hartu du Yagüe. "Musikak bakardadea arindu dit, itxaropena bueltatu dit, zoramenetik babestu nau eta nire bizitzako momenturik atseginenak eman dizkit", dio artistak. Kontzertua 20:00etan hasiko da.

“Urte asko daramat musika egiten, eta argi dut kalitate handiko diskoa dela”

Talde askotan aritutako musikaria da Aitor Rubio zornotzarra; bere bakarkako lehenengo lana kaleratu du: 'Argi izpiak'



Josu Zabalak ere parte hartu du grabazioan. Zelan, ba?

Josu erreferente bat izan da niretzat, eta ez bakarrik musikalki, baita pertsonalki ere. Pertsona justua, buru argia eta inspiratzailea da niretzat. Munduan egoteko era elegantea du, baita katiuskekin ere. Inoiz ere ez naiz izan gauzak eskatzekoa, ez molestatzeko beharbada, baina argi nuen berak nire diskoan egon behar zuela. Abesti bitan grabatzea proposatu nion eta baietz erantzun zidan. Oso pozik geratu naiz bere ekarpenagaz. Akordeoi doinuak *Argi izpia* eta *Bero bihotzean* grabatu ditu.

Diseinuaz ere zeu arduratu zara. Gu-rago duzu bakarka lan egin?

“**Ez dakit zergaitik ez ditudan kaleratu nire abestiak orain arte; beharbada ez nintzen prestatua sentitzen**”

Azala, liburuxkua eta diseinua neuk egin ditut. Abesti guztiak konposatu, letra guztiak egin, ia instrumentu guztiak jo eta grabatu, diskoa nahastu, masterizatu... Baina kontua ez da neuk egin nuela dena. Gauza horiek guztiak egiten ikasi dut eta egin egin ditut. Hurrengo diskoan, lagun askogaz egin gura nuke dena, musikari zein letrei dagokienez, eta horrela izango da seguruenik. Bien bitartean, kaleratu dudana diskoa entzuteko aukera duzue. Urte asko daramat musika egiten, eta argi dut kalitate handiko diskoa dela. Bederatzi argi izpi lasai dastatzeko aukeran daude diskoan. Komenigarria da entzuteko momentu eder horretan ardoa eskura edukitzea ere, badaezpada.

Non entzun edo erosi daiteke diskoa?

Diskoa Spotify eta beste plataformarik gehienetan dago entzungai. Eta Elkar dendetan ere erosi daiteke, formatu fisikoan. Informazio gehiagorako, *aitorrubio.com* webgunera sartu daiteke. Animatu eta entzuteko momentua topatu, merezi du eta.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Aitor Rubiok bere ibilbideko lehenengo bakarkako diskoa kaleratu du oraintsu: *Argi izpiak*. Zornotzarrak urteak daramatza musikagintzan, eta hainbat taldegaz lan egin du azken urteetan: Gu Ta Gutarrak, Mikel Urdangarin, El Consorcio, Gorka Knörr, Xabi San Sebastian Band... Musikari, konpositore, ekoizle eta moldatzaile lanak egiten ditu. Horrez gainera, Musikaudio estudioko zuzendaria ere bada Rubio.

***Argi izpiak* kaleratu duzu oraintsu. Urteak daramatzazu musikagintzan, baina bakarka kaleratu duzun lehenengo lana da hau. Zergaitik publikatu duzu orain?**

Bai, nire lehenengo lana da. Inoiz ere ez da berandu, ezta? Orain arte, hainbat taldetan aritu naiz musikari. Eta, bien bitartean, nire abestiak egiten ere egon naiz.

“**Oraingoz ez dut zuzenkorik egingo; beharbada, lagun batzuekin elkartu eta hortik ikusiko dugu elkar**”

Ikasten joan naiz. Egia esateko, ez dakit zergaitik ez ditudan kaleratu nire abestiak orain arte. Beharbada ez nintzen sentitzen nahikoa

prestatuta aurrera egiteko. Baina, denboragaz, ikasten, desikasten eta aldatzen joan naiz. Orain, antzeko estiloa izan dezaketen abesti sorta bat izan dut esku artean, niretzat bereziak direnak, eta argi ikusi dut: hauxe da momentua.

Abestiak berriak dira? Edo, zein denbora tartetan konposatu dituzu?

Abesti mordoia dut kaxoitean gordeta, eta, beharbada, beste batean kaleratuko ditut. Baina abesti hauek berriak dira. Urte pilo daramat besteentzat abestiak egiten eta grabatzen nire estudioan, Musikaudio, eta asko ikasi dut. Pandemiagaz musika pilo kale-ratu da eta ni horietariko beste bat naiz.

Instrumentu eta ahots guztiak zeuk sartu dituzu. Eroso aritu zara?

Dena ez dut nik grabatu. Abesti bitan akordeoia dago; Josu Zabalak grabatu ditu. Baina gainerakoan neuk grabatu ditut, bai. Eta benetan eroso sentitu naiz. Azken finean, horixe da nire eguneroko lana: beste abeslariarentzat abestiak konposatzen, moldatzen, grabatzen eta abar egoten naiz egunero.

Baduzu asmorik diskoa zuzenean aurkezteko? Zelan moldatuko zara zuzenekoetarako?

Oraingoz ez dut zuzenkorik egingo, baina ateak zabalik utziko ditut, eta beharbada lagun batzuekin elkartu eta hortik ikusiko dugu elkar.



urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69



clínicadental hortzclinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Azken asteetako moduan, larrialdietan artatzen jarraitzen dugu, baina eguneroko pazienteak ere lehenbailehen artatzen hastea espero dugu, osasun agintarien baimena jaso bezain laster.

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - ucdental@gmail.com



Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai.

Generoa umoregai hartzen duen 'Luze edo motz' lana ikusgai Durangon

Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai 'Luze edo motz' aurkeztuko dute uztailaren 28an

UDA GIRO • ARITZ MALDONADO

Besteak beste, hilekoa, menopausia, ligatzeko teknikak eta sexua dituzte hizpide Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai *Luze edo motz* ikuskizunean. Generoa ardatz hartuta, gizartea "non geratzen den motz, eta non luze" galdetzen dute bertan. Binakako bakarrizketa ikuskizun bat da. Aurretik, Martiarenak eta Torregarai *Bakean dagoena bakean utzi* antzezlanaren sortu zuten elkarrengaz, 2018an; 2020ko udazkenean estreinatu zuten, eta dozenaka emanaldi eduki dute ordutik. Durangoko Udalak Andereak

elkarteagaz batera antolatu du ekitaldi hau.

Uztailean, BarSanti konpainiaren *Akabo!* ikuskizun berriaz gozatzeko aukera ere egongo da Uda Giro zikloaren barruan. Ohikoa den moduan, gai sozial baten inguruan eraiki dute antzezlanaren Durangaldeko konpainiako kideek. Kasu honetan, suizidioaren gaia landu dute, tonu tragikomikoan. Pertsonaiek hamabi metroko plataforma batetik jauzi egin ala ez erabaki beharko dute, bizirik jarraitu ala ez dilemari aurre egin beharko dute. BarSanti Juanjo Oterok, Aritz Rodríguezek eta Pako

Revueltasek osatzen dute. Santa Ana plazan izango da, uztailaren 31n, 20:00etan.

Abuztuan ere bai

Durangon udako hileetan eskaintza kulturala bermatzeko asmoagaz antolatu du udalak Uda Giro. Horrela, abuztuan zehar hiru ikuskizun egongo dira. Abuztuaren 6an, *Numavut glaziarren lurraldea* dantza ikuskizuna egongo da; abuztuaren 12an, Javier Garcia 'Mimo'-k *Nao-Now-Nau* zirku emanaldia egingo du; eta abuztuaren 27an, Markeliñek *Homiens* aurkeztuko du.

Txapito Guzmanek "azken txiribuelta" emango du

Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuek taldeak azken kontzertua joko du, domekan, Amaraun Arte Fabrikan

MUSIKA • A. M.

Neguan, bere jarduna bertan behera utziko zuela iragarri zuen Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuek Durangaldeko laukoteak. Baina, agurtu aurretik, *Azken txiribuelta* bira iragarri zuten; asteburu honetan amaituko dute hori. Gaur Oñatin (Gipuzkoa) joko dute, eta domekan azken kontzertua emango dute, Abadiñon, Amaraun Arte Fabrikan. Domekako emanaldia 13:30ean izango da; 12:00etan zabalduko dituzte ateak, eta

19:30era arte musikaz gozatzeko aukera egongo da bertan, antolatuak azaldurikoaren arabera. Sarrera doakoa izango da.

Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuek 2016an sortu zuten Egoi Petitek (trikitixa), Gorka Bidaurrezaga 'Potti'-k (bateria), Josu Abaunzak (baxua) eta Mikel Astobiza 'Asto'-k (gitarra). *Animos de vivir* diskoa kaleratu zuten. Rantxera doinuei ukitu propio bat ematen diete laukoteak, eta kontzertuetan, klasikoak ere eskaini izan dituzte.



Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuek.

Gai librean

Itzalkina

Egunetik egunera hiltzera noa eta itzala da eguzkiaren onena errepikatzen dizkiot udan neure buruari. Lanera joateko goiz eta izerdi batean esnatu, dutxa hotzik ezin hartu (ez baitu sekulako beroa egiten oraindik ordu horietan). Lanean nola edo hala beroari ihes eginda, autora buelta. Uste dut orain badakidala zelako bidea izango dudan hil eta infernura joan beharko naitzen. Gutxigaitik ez nintzen jarri arrautzaren proba egiten. Arrautza eta eguzkitan egoteko gogoa eta adorea falta zitzaizkidan horretarako. Zapatiletako goma ere urtzen zebilela iruditzen zitzaidan.

Asteburuan hondartzara joan naiz. Hondartza eta ni, zelan esan... ez gara munduko lagunik handienak. Eguzkiak eta hareak osatzen duten bikotea



Igor Galarza Intxausti
Kazetaria

eskasa da nire ongizaterako. Zer esanik ez haizea gehitzen bazaie. Eskerrak ura alde dudana, ostantzean planetako lau elementuak kontra izatea ez da kontu erraza bizi gura baldin baduzu. Heldu ginen Lagako hondartzara, eta bikotekideak nire salbazioa izango zena atera zuen kotxetik: itzalkina. 220 zentimetroko diametroagaz. Badaki eguzkiaren kolpeekin marmarti bat bihurtzen naizela, eta badaki bera ere "señoratu" egin dela.

Heldu ginen haretara. Erre egiten zuten, suzko bola madarikatuak ile bazterretatik zuku ateratzen zuten aldi berean. Iltzatu genuen itzalkina, baina haizea jostari zebilen, eta aterki erraldoia airean ateratzeko prest zegoen. Gurea ez ezik, hondartzako gainontzeak ere bai. Baina, tira, bukatu zen infernua. Etxera. Gutxi ez, eta hurrengo egunean lagun batek hondartzara

joateko plana proposatu zidan. Bere laguntasuna zalantzan jartzeraino ailegatu nintzen.

Ez dut biologo, ekologo edo dendrologiako aditu paperik hartuko, baina joan zen asteak lako egunetan konturatzen gara zeinen beharrezkoak diren zuhaitzak herriguneetan. Zuhaitzak, eta berdeguneak. Libe Mimenzak aitortu zuen aurreko asteko zutabearen "inertzia termikoa" bilatu zuela interneten. Nik "zuhaitzen eragina tenperaturaren" bilatu dut, eta zera dio: "Zuhaitzek 10 gradu inguru jaits dezakete tenperatura". Ez da aditua izan behar eguzkitik ihes egiteko modurik onena itzala dela jakiteko, ezta itzalik onena naturak eskaintzen diguna dela jakiteko. Ez da tenperaturagatik bakarrik. Zaindu itzazue zuhaitzak, abuztua bihurgunez beterik dator eta. Zuhaitza da itzalkinik onena.



Beñat Etxebarria Merino

Durangoko Kulturalako entrenatzailea

ARRIGORRIAGA | 1982

“Gurago dut partiduetan protagonista izaten ahalegintzen den taldea; horixe da gure ideia aurten”

Beñat Etxebarriak eta bere lantaldeak sekulako lana egin dute bederatzi urtez Larrabetzuko Uritarra taldean. Orain, abentura berri bati ekingo dio Durangoko Kulturalen, "motibagarria" iruditzen zaion proiektuan

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Uritarra klubean gauza handiak lortu dituzu eta merezi du hori gehiago ezagutara emateak. Lehenengo eta behin, zelan heldu zinen Larrabetzuko klubera?

Indautxuko gazteen taldea entrenatzen nabilela eskaini zidaten Uritarrara batzea. Nik ez nuen loturarik ez klubagaz, ez Larrabetzuz, ez inogaz. Sorpresa izan zen. **Nork esango zizun orduan ia hamar-kada bat emango zenuela bertan.** Sekula ere ez nuen pentsatuko. Oso arraroa da entrenatzaile bat toki berean hainbeste denboran egotea. Baina horrela irten zen eta oso pozik nago han emandako denboragaz.

2.000 biztanle dituen herriko futbol kluba Hirugarren Mailara igotzea

sekulako lorpena izan zen. Zelan gogoratzen duzu?

Horren aurretik Ohorezko Mailara igo ginen, kasu hartan ere klubeko historian lehenengoz. Baina, bai, Bizkaitik Euskadi mai-

“Durangoko Kulturala klub historikoa da, proiektu motibagarria du eta pauso bat aurrera ematea dela iruditzen zitzaidan”

lako ligara igotzea zirraragarria izan zen herriarentzat. Sekula Bizkaitik kanpora lehiatu barik zeuden, eta erronka bat izan zen.

Pertsonalki ere poz ikaragarria hartu nuen, jakina.

Zelan eraldatzen da talde bat ametsa zirudiena errealitate bihurtzeraino?

Lana da sekretu bakarra. Arlo bakoitzean pauso bat haratago joaten ahalegindu ginen: egituran, metodologian... Eta denen konpromisoa funtsezkoa izan zen: zuzendaritza desberdinetatik hasi, koordinatzaileetatik jarraitu eta jokalarik eta entrenatzaileetarako.

Durangoko Kulturalaren partetik jasotako eskaintza bakarra izan zen ala gehiago izan zenuen mahai gainean?

Egia esateko, beste eskaintzaren bat ere izan nuen, baina hasieran Uritarren geratzea erabakita nuen. Kulturalatik deitu zidatenean kirol zuzendariagaz geratu nintzen, transmititu zidan dena gustatu zitzaidan eta aste horretan bertan lotu genuen akordioa.

Zer da hain arin konbentzitu zintuen?

Niri, nire lantaldeari eta gure lan egiteko moduari buruz asko zekitela ikusi nuen. Bazekiten gu nor ginen eta zer eskaini genezakeen, eta hori garrantzitsua iruditu zitzaidan. Epe ertaineko proiektua zela esan zidaten, eta horregaitik ipini zutela begia klub berean luzaroan egon den norbaitengan. Epe ertainera Bigarren RFEF Mailara bueltatu gura zioten. Hori guzti hori gustatu zitzaidan. Kul-

turala klub historikoa da, proiektu motibagarria du eta pauso bat aurrera ematea iruditzen zitzaidan. Urtebeterako sinatu dut.

Azken asteetan, klubak hainbat fitxaketa iragarri du. Zuk baduzu fitxaketetan erabakitze ahalmenik, ala zuzendaritzakoen lana da?

Hainbat kideko lantaldea osatu dugu eta fitxaketak gune horretan adosten ditugu. Kirol zuzendariak eta talde teknikoak elkarregaz hartzen duten erabakia da hori.

“Anbizioa duten jokalariek bilatzen gabiltza, gora egiteko gosea duten jokalarik lehiakorrak”

Zelako jokalariek bila zabilzate?

Adinari dagokionez, oreka bat bilatzen dugu. Gu heldu ginenean, ez zegoen 23 urtez azpiko jokalaririk, eta araudiak dio tarte horretako sei jokalarik egon behar direla gutxienez. Beraz, lehenengo hutsune hori betetzeari ekin genion. Bestelakoan, adina alde batera utzita, anbizioa duten jokalariek bilatzen gabiltza; gora egiteko eta partidu guztiak jokatze gosa duten jokalarik lehiakorrak.

Pozik zaude orain arte heldu denagaz?

Bai. Iaz egindako lan onari jarraipena emateko, mantendu gura genituen ia jokalarik guztiak mantendu

ahal izan ditugu. Hortik aurrera, hutsuneak betetzen joan gara, eta, bai, pozik gaude etorri direnekin. Oraindino fitxaketaren bat edo beste falta da iragartzeko.

Zelan definituko zenuke zure jokamoldea? Jendeak ulertu dezan: Simeone ala Guardiola?

Aurkitzen dudanera moldatzen naiz. Tokian tokiko jokalariek ezaugarrietara eramaten dut jokamoldea. Aukeratzen ematen badidazu, gurago dut baloi jabetzari eusten eta behetik jokatzen ahalegintzen den taldea, goian presionatzen duena eta partiduetan protagonista izaten ahalegintzen dena. Horixe izango da gure ideia aurten. Partidu guztietan anbiziotsuak izan gura dugu. Batzuetan posible izango da eta beste batzuetan ez, jakina, eta unean uneko egoerara moldatzen asmatu beharko dugu.

Playoffetarako borrokan egotea da taldearen helburua?

Iaz, liga amaitzeko jardunaldi biren faltan, taldeak playoffetara sailkatzeko aukera zuen oraindino. Beraz, helburuak gutxienez playoffetarako borrokan egoteak izan behar duela uste dut.

Denboraldiaurreko partiduak lotuta dituzue?

Partidu asko lotuta daude eta denboraldiaurrea diseinatuta dago. Deustu, Urduliz, Padura eta Arenas taldeen kontra jokatuko dugu, besteak beste. Erandioko Mendeurren Torneoan ere parte hartuko dugu.

Amorebietak etorriko diren jokalariei atea zabalik hasi du denboraldiaurrea

Kopuru aldetik, "justuan" hasi dute denboraldia, eta fitxaketak "apurka" heltzen joango ei dira



Astehenean denboraldiaurreko lehenengo entrenamenduan Urritze zelaian ateratako argazkia. **SDAMOREBIETA**

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Amorebietak astehenean ekin zion denboraldiaurreari, eta gura baino kamiseta urdin gutxiago irten zen lehenengo entrenamenduko argazkian: 14 jokalarik, gutzira. Bigarren Mailatik Lehenengo RFEF-erako itzulerak baditu bere zailtasunak jokalariek mantendu edo berriak ekartzerako orduan, eta klubeko arduradunei egoera hori kudeatzea egokituko zaie. Jokalari kopuru aldetik "justuan" daudela onartu du Asier Goiria kirol zuzendariak, eta fitxaketak "apurka-apurka" heltzen joango direla. "Badira proiektu berrirako mantendu gura ditugun bi-hiru jokalarik, baina bere zailtasunak

ditu. Kontuan hartu behar da Bigarren Mailan aritutako jokalariek direla eta euren aukerak agortu gura dituzte", adierazi du.

Mikel Goiria, Beñat Garro, Beñat Leiza eta Unai Uberuaga Amorebietara bueltatu dira, iaz Uritarra, Arenas, Sestao River eta Getxo taldeetan utzita jokatu ostean, hurrenez hurren. Aitor Intxausti filialetik, eta Youssef Issakhi eta Xabier Ayarza gazteen taldetik datoz. Gainerako aurpegi berriak honako hauek dira: 2018-19an Amorebietan aritu zen Jon Mikel Magunagoitia atezaina Zamoratik dator; Javier Murua eta Xiker Ozerinjauregi defentsak Salamancatik eta Logroñesetik,


hurrenez hurren; Unai Bujan erdilaria Sestaotik, eta Urko Izeta eta Mikel Pradera aurrelariak Eibarretik eta Real Unionetik, hurrenez hurren.

Denboraldiaurreko partidua

Denboraldiaurreko lehenengo partidua uztailearen 29an jokatu dute, Eibar taldearen aurka, Arrasateko Atxabalpe zelaian. Urritxen abuztuaren 6an estreinatuko dira, Osasuna Promesas taldearen kontra. Hurrengo hiru partidua Numantzia, Bilbao Athletic eta Gernika taldeen kontrakoak dira, abuztuaren 10ean, 13an eta 18an, hurrenez hurren.

DKTko Markel Fernandez, distiratsu Espainiako txapelketan

Urrezko domina irabazi du 400 metroko proban eta munduko txapelketara joateko gutxieneko marka lortu du



Markel Fernandez, Valentzian lehiaturiko Espainiako txapelketan.

ATLETISMOA • J.D.

Valentziako Torrent herrian 20 urtez azpiko Espainiako atletismo txapelketa lehiatu zuten joan zen asteburuan, eta Durango Kirol Taldeko Markel Fernandez (2003, Sopela) hantxe aritu zen. Bere espezialitatea 400 metroko proba da eta bertan egindako lana distiratsua izan zen. Urrezko domina kolkoratu zuen, denbora honegaz: 46.21. Inoizko laugarren denborarik onena da 20 urtera artekoan. Iaz txapelketa horretan lorturiko denbora segundo bat baino gehiagoan hobetu zuen. Denbora horregaz, abuztuaren 1etik 7ra

Kolonbiako Cali hirian egingo den munduko txapelketan aritzeko gutxieneko denbora lortu zuen

Munduko txapelketa abuztuaren 1etik 7ra lehiatuko da, Kolonbiako Cali hirian

korrikalari sopelarrak. Lasterketa berean, beste korrikalari bik ere munduko txapelketan aritzeko gutxieneko denbora eskuratu zuten.

Jokaldia

Denboraldi bukaera

Beste denboraldi bat bukatu da, eta, gainera, aurten absolutu mailarako saltoa eman behar izan dut. Neguan, hainbat osasun arazo eta lesio eduki eta gero, pista estalian nire marka hobetzea lortu nuen. Udako denboraldian, oztopoen proban 18 segundoan hobetu dut nire marka pertsonala, Euskadiko errekor berria ezarriz, eta Espainiako seigarrena izan naiz absolutu mailan. Beraz, progresio egoki bat eduki dut beste urte batez.

Duela egun batzuk korrika egitera irten nintzela, ordu betez, amaitu berri den denboraldiaz pentsatzen egon nintzen. Aurten lortutakoak motibazio handia ematen dit datozen urteetarako. Nahiz eta egin dudana oraindik ez den nahikoa etorkizun batean bete nahi ditudan helburuak



June Arbeo Sarriugarte
Korrikalaria

"Aurreko urtean esan balidate aurten lortu ditudan emaitzak lortuko nituela, oso pozik egongo nintzen"

"Hemendik aurrera lortzen dudana lortzen dudala, bidez disfrutatuko dudala zin egin diot neure buruari"

lortzeko, pentsatu nuen: "Aurreko urtean esan balidate aurten lortu ditudan emaitzak lortuko nituela, oso po-

zik egongo nintzen". Baina, gero, egin dudanean, gehiago nahi nuen sentazioarekin geratu naiz. Denbora apur bat pasatu behar izan da egin dudana baloratu eta benetan daukan balioa emateko. Askotan zorrotzgiak gara gure buruarekin eta ez dugu egiten dugun esfortzua benetan baloratzen, eta pentsatzen jarrita ez da justua. Konturatu naiz momentu askotan egiten nembilenaz disfrutatuko beharrean, "izan zitekeena baina izan ez dena" bezalako gauzetan egon naizela burua jaten.

Nire entrenatzaileak esan ohi dit, lasterketa edo denboraldi bat bukatzean zerbait ikasi badut, irabazi dudala. Beraz, aurten irabazi dut: lezio bat ikasi dut. Hemendik aurrera lortzen dudana lortzen dudala, bidez disfrutatuko dudala zin egin diot neure buruari.

Zornotzako jaiak

Zornotzako argazkiak.: UNAI OLASO



Jairik jai!

Otxandio jaiak





ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Durangués
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguésado.com
inmoduranguésado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



KOMETUKALE
4 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin.
Ganbara eta garajea.
239.500 € C.E.E.= E



ABADIÑO
DUPLERA. Eguzkitsua. 2 solairutan banatuta. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Trastelekua. Garajea.
230.000 € C.E.E.= E



DURANGO
10 urteko antzinatea duen apartamentua. Igogailua, bizitzeko moduan.
145.000€ C.E.E.=F



KURUTZIAGA
80 m². 3 logela, 2 komun, sukalde handia eta egongela terrazarekin. Ganbara.
175.900€ C.E.E.=G



Bixente Kapanaga
Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza.
165.000 € C.E.E.=E



ABADIÑO
4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. Terraza. Lokal komertziala eta garajea. Parkin probatua. Txokoa. 300 m²-ko lorategiarekin.
355.000€ C.E.E.=F

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Zubiaurre kalea. Pisu zoragarria. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Garaje itxia.

DURANGO: Herriko Gudariaren kalea. 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

DURANGO: Aramotz auzunea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Prezio ezin hobea.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO
ABADIÑO: Iturrirto kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ
BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA: Orozketa auzoa. Baserri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m²-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria
ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarriko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berrizatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzen.

//BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifa barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIUAN

BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

www.inmoduranguésado.com



DURANGO 120 m²
3 logela
GASTEIZ BIDEA: Egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (hegoalde-mendebaldea) Argitsua. Herriko irteeratik gertu. Egoera onean.
178.000€ C.E.E.:E Bidean



DURANGO 75 m²
3 logela
ANTSO ESTEGIZ: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Etxe erdiak kanpora ematen du. (hegoalde) Argitsua. Zonalde berdeak eta herriko zerbitzu guneetatik gertu (eskola, supermerkatua,...) Egoera onean.
187.000 € C.E.E.: Bidean



DURANGO 85 m²
3 logela
ASTEPE: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia eta galeria. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hego-mendebaldea). Leku onean kokatua. 6 m²-ko trastelekua. Argitsua. Ikuspegi onak. Garajea aukeran + 19.000 €. **230.000 € C.E.E.: Bidean**



MATIENA 57 m²
3 logela
SOLAGUREN: Egongela, sukalde jantzia, bi logela, komuna eta despentsa. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoalde). Leku onean kokatua. Igogailua. Gas naturala. Bizitzera sartzeko moduan. 6 m²-ko trastelekua.
110.000 € C.E.E.: F



IURRETA 70 m²
3 logela
BIDEBARRIETA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoalde). Argitsua. ITE-a 2018. urtean pasatutakoa.
159.000 € C.E.E.:E negoziagarria



MUNTSARATZ 70,4 m²
2 logela
ARLOZABAL: 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. 10,82 m²-ko trastelekua eta 19,32 m²-ko garajea. EZIN HOBEA.
189.000 € C.E.E.: Bidean

//DURANGO

ARTEKALE KALEA: Logela, sukalde-egongela eta komuna. Igogailua. **150.000 € / E.E.Z=F**

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukalde, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z.=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukalde eskegitokiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **280.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

KOMETUKALE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TRENBIDE KALEA: 5 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **175.000 € / E.E.Z=F**

//ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZOA: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 120.000 € ORAIN 105.000€ / E.E.Z=F**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeno baserria lurzorugaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **125.000 € / E.E.Z=F**

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

GONBILAZ AUZOA: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **420.000 € / E.E.Z.= BIDEAN.**

//ZALDIBAR: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **228.000 € / E.E.Z=F**

//BERRIAK


DURANGO: Juan de Olazaran 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela, bainugela bi, igogailua, trastelekua eta garajea. **385.000€/ E.E.Z=B**

//ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

//GARAJEAK SALGAI

Durango eta lurretan, aukera desberdinak.



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**
Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Botikak

BARIKUA, 22 · 09:00-09:00

DE DIEGO INTXAURRONDO
22. - DURANGO

RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE
ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 23 · 09:00-09:00

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO
ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-13:30

CAMPILLO MONTEVIDEO
ETORB. 24 - DURANGO

BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO

SARRIA SASIKOA 17, DURANGO

DE DIEGO INTXAURRONDO
22. - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGO
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

MELERO, ROSA MARI SAN
PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 24 · 09:00-09:00

MUGICA ANDRA MARIA 9 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO
ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 25 · 09:00-09:00

BALENCIAGA EZKURDI
PLAZA 8 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO
ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 26 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
ABASOLO 2 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO
ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 27 09:00-09:00

IRIGOIEN BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO
ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 28 · 09:00-09:00

SARRIA SASIKOA 17, DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO
ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

SARASKETA, TZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorionak, Zuri! Eskuen ez jaku koparik faltako zuzaitik topa eiteko! Dana merezi dozu, biba zu! Askok gure zaittugun, gure crossfitera kuttuna! Zure kuadrillako tiabuenak.

Zorionak, Alluitz, familiako danon partez! 9 urte gaur, uztaileak 22! Jarraitu orain arteko moduen, alegere eta errebeldi. Hi haz hi tipue, txo! Txapeldune!

Zorionak, Anei! Uztailearen 25ean 7 urte. Musu handi bat aitaren eta amaren partez. Badakizu zenbat maite zaitugun. Infinituraino eta gehiago!

Zorionak, Eneko! Egun ederra izan dezazula. Besarkada handi bat. Anei, Mantxi eta Inmaren partez.

Zorionak Zaldibarko Aitzol Abini. Abuztuaren 2an lau urte egiten ditu. Besarkada eta muxu handi bat bere anaia Oierren, gurasoen, aitite Valentinen eta amama Mari Carmenen partetik, Errioxatik.

Zorionak "grupetako gregarixuai!" Argi ibili, laster etorriko da gure atake eta!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 25° / 15° ☁️

ASTELEHENA ↓ 27° / 17° ☁️

EGUAZTENA ↓ 24° / 16° ☁️

DOMEKA ↓ 34° / 14° ☁️

MARTITZENA ↓ 23° / 17° ☁️

EGUENA ↓ 26° / 15° ☁️

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

"Musika komertziala da nagusi, baina elektronikoa ere hasi da sartzen"

Egoitz Txurruka, DJ Txurru, Zornotzan musika ipintzen egongo da asteburuan. El Conquistador del Caribe eta Gu Ta Gutarrak saioekin egin zen ezagun mallabitarra



Egoitz Txurruka Gallo

Dj Txurru

MALLABIA | 1991

MALLABIA • AITZIBER BASAURI

Magisteritza ikasketak egin arren, Egoitz Txurruka 'Txurru'-k komunikabideen munduan egin du bidea. Gaztea irratik kanalean eta telebistan ikusi dugu azken zortzi urteetan, eta eroso eta pozik dabilela dino. Sei urtetik hona, DJ Txurru lez dabil Euskal Herriko makina bat herritan musika ipintzen.

Zein da gaur egun jaietan modan dagoen musika?

Musika komertziala da nagusi une honetan, dudarik barik. Dena dela, nik oso gustuko dudana generoa, musika elektronikoa, ere hasi da sartzen. Euskal musika eta reggaetia ere asko entzuten da.

Eta zein da aurtengo udako abestia?

Como si no importara (Duki&Emilia). Hego Amerikako artista asko hazten hasi direla esango nuke; trap eta musika komertziala egiten duten artistak dira, oso gazteak gainera. Bad Bunny da horren adibide, eta *Tití me pregunto* abestia. Bad Bunnyren azken laneko abesti guztiek arrakasta itzela izan dute. Zetaken *Itzulera* ere oso polita da.

DJ modura jairik jai ibiltzea egokitzuten zaizu. Zeintzuk jai dituzu gustukoak?

Nire herriko Urriko Jaiak oso bereziak dira. Urteko lehenenengoak Matienako sanprudentzioak (Abadiño) izaten dira, eta Mallabi-

ko Urriko Jaiak azkenak. Gainera, pare bat urtean ipini izan dut musika; oso berezia da etxean aritzea. Hiri handietako jaietan musika

Mallabiko Urriko Jaietan tokatu zait pare bat urtean musika ipintzea; oso berezia da etxean aritzea

ipintzea ere berezia da. Horien artean, Iruñekoak aukeratuko nituzke. Sanferminak egundokoak dira!

Jaizalea zara?

Bai, gaztea naiz oraindino, eta jaia eta lana uztartzen ditut (barrez).

Une oro entzungo zenukeen kanta?

Musika elektronikoa asko gustatzen zait, asko kontsumitzen dut, euskal musikagaz eta komertzialagaz batera. Horrek osatuko luke nire playlist-a. Une honetan, beharbada, Rikkigaz batera, Josune Arakistainek *Süne* izen artistikoagaz ateratako *Sunday* dut gogokoen, entzunenatarikoa da. Zetaken *Itzulera* ere asko gustatzen zait.

Une honetan, Rikkigaz batera, Josune Arakistainek Süne izen artistikoagaz ateratako 'Sunday' abestia dut gogokoen

2013an El Conquistador del Fin del Mundo telebista saioan parte hartu zenuen, Gu Ta Gutarrak etorri zen gero, eta, orain, Nos echamos a la calle saioan ikusten zaitugu. Magisteritza ikasketak egin arren, gustua hartu diozu telebistari.

Orokorrean, komunikabideei. Sorturiko aukerak aprobetxatu ditut eta dena ibili barik etorri da. Aukeratu beharra tokatu zitzaidan, eta esan behar dut zortzi urte oso oparoak izan direla, laboralki eta pertsonalki. Telebista oso iragankorra da, oso aldakorra, baina, oraingoz, zorte handia izan dut, oso ondo doa dena.

Ikusten zenuen zeure burua horretan?

Ez, inondik eta inora! Asko ikasten nabil eta horixe da garrantzitsua. Bide honetan jarraitu gura nuke, nire lekua topatu. Etorkizun polita duen lan polita dela uste dut, eta luzerako izatea espero dut. Bestela... badut B plana, eta C, D... planak.

Baduzu tarterik surferako.

Etxean dut ohola, baina olatu gutxi hartu dut azkenaldian! (barrez) Gustatzen zait surfaren mundua, baina orain crossfit-ean murgildu naiz eta 15-20 kilometroko lasterketan parte hartzeko prestatzen naiz.

Politikan

Markel Sanchez Zelaia Behargina



Desira

Badira pare bat aste Durangoko Alde Zaharrean bizi naizela, eta, ezustean, afizio berria sortu zait: bentanan egoten naiz jendeari begira. Orduak pasa ditzaket. Zelata horren kronika txiki bat dakart hona, lotsa gutxirekin, harrituta naukalako asteon entzun dudanak.

Astelehenean, laneko arazo batzuk aipatu zizkion pertsona batek ezagun bati, eta sindikatura batzeko gonbitaz erantzun zion besteak. Irribarre egin nuen. Martitzenean, beroaz kezu zen andre batek dendari bati esan zion abanikoak hartu baino hobe dela ekoizpen baliabideak hartzea, ganora apur bat falta dela hemen. Txaloak joko nizkion, horrek zelatan nengoela agerian utziko ez balu. Eguazten iluntzean gizon batek beste bati esan zion badela sasoa, bere adinerako, zakil bat probatzeko. Burua atzera bota nuen astiro, baina adi-adi jarraitu nuen begira. Eguenean kuadrilla bat eztabaidan pasatu zen, balizko Euskal Herri libre batean migratzaileentzat zein harrera protokolo edukiko genukeen, eta euretako batek esan zuen ordurako inori ez zitzaiola migratzaile deituko. Pentsakor geratu nintzen. Aipagarria da, bestalde, lokartzen nengoela ohetik entzun nuen literatura kritika, gaztea zirudien baten ahotsetik. Barikuan, asteon zelatatu dudana gatik, euskara gutxi dakien bat Anboto irakurtzen dabil, bere ulermen maila lantzeko.

Agian kontatu dudana ez da gertatu. Agian bentanatik benetan entzundakoaz idaztea pentsatu nuen, haserre, gure gizartearen kritika bat pesimismoa. Agian bentanatik begira harrapatu nau pasiatzaile batek, eta nik begi-keina egin diot, ea desira pizten diodan.



Gure aukerak,
zuretzat onenak!

Saldu, erosi, trukatu, oparitu... EUSKARAZ!